

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Estatuaren jokabideak bere
kontakizuna gezurtatzen du **IÑAKI ALTUNA > 11**

BASK PROIEKTUA: «Fast
fashion»-aren etiketak zama
izan beharko lukeelako **> 12**

2019ko urriaren 5a | XIII. urtea • 640. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



«ESKUBIDEEN
BORROKAN,
EUSKARARI
MEREZI DUEN
TOKIA EMAN
BEHAR ZAIO»

> 22 Gorka RUBIO | FOKU

Arrate Fernandez andoaindarra,
Boliviako zine jaialdian
epaimahaikide 04

Pinocheten torturak ikertu zituen
«Valech txostena», liburu batean
laburbilduta 08


Hiru euskal gaztek arropa tailerra
ireki nahi dute Bangladesheko
hiriburuan 12

Herritar euskaldunek sare
sozialetan ematen duten iritzia
ezagutzeko sistema 17

E.lkarrizketa: Agurne Gaubeka,
Behatokiko zuzendaria 22

In fraganti: Ane Gebara 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Diruaren erabilpenari buruzko eztabaidak pil-pilean
- 10 **Oier Gorosabel:** Kokzigodinia edo ipurdiko mina
- 11 **Iñaki Altuna:** Estatuaren jokabideak bere kontakizuna gezurtatzen du
- 16 **Unai Gaztelumendi**
- 20 **Gorka Etxebarria:** DNAk eta urpekariak
- 21 **Joana Garmendia:** Zipaioak eta marikitak
- 27 **Nekane Zinkunegi**
- Barandiaran:** Gugan, betiko
- 27 **Joxean Agirre:** Kilometroak
- 30 **Itziar Elizondo:** Deserrealitaterantz



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Diruaren erabilerari buruzko eztabaidak pil-pilean

Diruak gero eta interes gehiago pizten du: ordainketa sistemak direla, kriptodibisak direla, datuak direla... Eztabaidotan lerro ezberdinak gurutzatzen dira. Funtsean, ordainketak egiteko baliabide elektronikoaren erabileraren inguruko gogoetak dira batzuk, eta, besteak, bloke kateetan oinarritutako dibisa berrien –bitcoin eta ethereum modukoak– eta etorkizuneko kapitalismoan izango duten eraginaren ingurukoak. Eskudiruarekin egiten diren ordainketa asko pagamendu elektronikoekin ordezkatzeko ari dira abiadura handiz. Banku transferentzien bidez edo kreditu txartelak erabiliz gero eta ordainketa gehiago egiten dira. Banku txartelok orain mugikorretan ere gehitu dira eta web zerbitzu batzuk ere asmatu dira diru eragiketok burutu ahal izateko.

Funtsean, baliabideok ez dute orain arteko sistema aldatu. Kreditu txartelen teknologia bera erabiltzen dute mugikorrek edo bidesariak ordaintzeko tramankuluek. Horien guztien atzean banku bat dago, kontu korrante bat, orain arte erabili den doikuntzak egiteko sistema berbera...

Eragiketa elektronikoaren kudeaketak informazio baliagarria biltzeko aukera eskaintzen die bankuei. Badakite bakoitzak zertan gastatzen duen dirua, zer erosten duen, noiz, nori, non... Informazio preziatua da bankuentzat: kredituak emateko garaian erabiliko dute, baina baita diru truke beste enpresa batzuei lagatzeko ere. Hori gutxi balitz, eragiketok egiteagatik bezeroei komisioak kobratzen dizkiete bankuek. Pagamendu elektronikoekin negozio biribila dute!

Gauzak horrela, ez da harritzekoa web plataforma erraldoiek, Google, Amazon, Apple eta enparauek, negozio horretan eskua sartu nahi izatea. Berez, dagoeneko, denek lortu dute Internet bidezko diru eragiketak egiteko baimena.

Ordainketa elektronikoaren zabalpenean faktore ezberdinek izan dute eragina. Erosotasuna da horietako bat: txartela edo mugikorra eramanda, ez da eskudirua erabili behar. Horrez gain, Internet bidezko erosketen onarpenak beste lerro bat ireki die ordainketa elektronikoei. Eta azkenik, eta ez bere garrantzia txikiagoa delako, estatu gehienetan eskudirutan egin ahal diren ordainketei muga bat ezarri zaie. Iruzuraren aurkako neurria da. Horrela antzeman daitezke aitortu gabeko etekinak edota legez kontrako jarduerak, esate baterako, droga trafikoa, kontrabandoa edo emakumezkoen salerosketa.

Ordainketa elektronikoaren onurak begi bistakoak dira: erosotasuna, azkartasuna, iruzurra oztopatzea. Hala ere, zenbait estatutan jendeak ez ditu ordainketa elektronikoak gogoko, adibidez, Alemanian edo Austrian. Erregi-

Ulergaitza da estatuek zergatik ez duten eskaintzen ordainketak egiteko sistema publiko eta doakorik. Are gehiago eskudirutan egin daitezken ordainketak mugatu dituztenean

men autoritarioak jasan dituzten herritarrek prebentzio handiarekin ikusten dute dena estatuaren esku uztea. Interesgarria izango litzake jakitea ea ardura berdina duten Interneteko monopolio pribatuen aurrean. Estatuak, azken finean, arau batzuk bete behar dituzte, eta, hutsuneekin bada ere, berme batzuk eskaintzen dituzte, baina inork ez daki enpresa pribatuek zer egiten duten gure datuekin. Alde horretatik ulergaitza da estatuek zergatik ez duten eskaintzen ordainketak egiteko sistema publiko eta doakorik. Are gehiago eskudirutan egin daitezkeen ordainketak mugatu dituztenean. Beharbada, herritarren interesen aurretik banku eta plataforma pribatuen negozio aukerak jarri dituztelako izango da... •

BOLIVIAKO ZINE JAIALDIA

Arrate Fernandez zinema zuzendari euskalduna epaimahaikide izan da

Boliviako nazioarteko giza eskubideen zine jaialdian epaimahaikide izan da Arrate Fernandez Itxaso Andoaingo zine zuzendaria. Hainbat herrialde-tako filmak izan ditu esku artean, gai gogorak eta garrantzitsuak jorratzen dituztenak: arrazakeria, transfobia, xenofobia, narkotrafikoa, feminizidioa eta gerraren konstantea, bertzeak bertze. Denek irekitzen dituzte argia sartzeko leihoak.

Sucreko Pukañawi jaialdiak 15 urte bete ditu eta “Hezkuntza guztiontzat” hartu du lelo-

 **KULTURA** / Maider Iantzi Goienetxe

Giza eskubideen inguruko dokumental bat bukatzen ari da Arrate Fernandez zine zuzendari andoaindarra eta lan horretan ari zela Boliviatik deitu zioten Pukañawi nazioarteko giza eskubideen zine jaialdian epaimahaikide izatea eskainiz. Pozarren onartu zuen, ez dagoelako kasualtaterik. Bertako esperientzia partekatu du gurekin.

tzat, «Hego Amerikan oraindik haurrak kalean daudelako lanean, esklabotza handiarekin. Bahiketetan ere umeak erabiltzen dituzte. Sare ugari dago;

Arrate Fernandez, zutik, ezkerretik hasita laugarrena, Boliviako zine jaialdiko epaimahaiko kideekin. PUKAÑAWI JAIALDIA

organoen transplanteetarako, adopzioekin lotuta, lanerako... Eta askotan ez da jakiten haurrak non dauden ere, ez delako ikerketarik eta jarraipenik egi-

ten. Feminizidioarekin gauza bera gertatzen da. Sare horietan militarrek nahastuta daudela esan ohi da», agertu dio zinegileak GAUR8ri jaialditik bueltan elkartzean. Ideien erreka agorrezina iruditu zai-gu Fernandez. Emari bizi eta alaia.

DESAGERTZEAK, EGUNERO

Desagertze eta heriotza horiek gutxiago zirelakoan zegoen, baina «eguneroko ogia» direla egiaztatu du.

«Horrek desorekatuta dauka herrialdea, bazter guztietatik. Lapurreta, engainua eta gezurra barra-barra dago. AEBek desegonkortasun ekonomikoa



sortzen diete. Zorretan daude, baina ez dira konturatzen dituzten baliabideak eramaten ari direla denbora osoan».

Andoaindarra han izan zenean, joan den abuztuaren 12tik 18ra, senatari bat hil zuten meatzariak greban zeudela. Munduan dauden meategi garrantzitsuenak dira Bolivia-koak, 3.000-4.000 metrora daude. Horieta «lan eskubi-deak ez dira batere betetzen. Gizon bat joan zen udaletxera esatera ez bazuten egoera aldatzen bere buruaz beste egingo zuela. Sei seme-alaben aita zen eta biharamunean bere burua hil zuen dinamitaz».

«Meatzariek grebarekin jarraitu zuten eta Evo Moralesi eskatu zioten joateko. Berak ordezkotzat bat bidali zuen, senatari bat. Grebalariek meatze batean sartu eta makilakadaka hil zuten».



HAUTESKUNDEAK, URRIAREN 20AN

Indarkeria handia dago, «ez dutelako jateko eta lo egiteko modurik ere, ezin dutelako duin bizi, nahiz eta presidentek pentsioak sortu dituen. Lan merkatuan aldaketa handiak egin nahi ditu, baina Brasil eta Argentinatik gertuen dagoen gunean, bada hiri bat lehen Donostia bezalakoa zena eta orain bi milioi pertsona dituen. Migranteak dira, non gelditu ez dakien jendea. Miseria handia egoteak borroka ekartzen ditu eta, ondorioz, hainbeste jende hiltzea».

Hauteskundeak izanen dira heldu den urriaren 20ko ingandean eta, Arrate Fernandezek ustez, «ez da erraza izango, jendeak ez duelako iparrorratz sendorik. Lehenengo presidente indigena (aimara) daukan herrialdea da, baina hedabideengatik edo hainbesteko arazoetatik egun batetik beste-

ra aterata daitezkeela uste dutelako, eskuindarrak sartzean pentsatzen ari dira. Jendeak hanka bat alde batean du eta bestea bestean. Ez da zentratzen. Evok %50a baino gehiago eduki dezake, baina ez dakit hauteskundeak zer gardentasunekin egingo dituzten».

Zine jaialdira itzuliz, honen sortzaileetako bat, Katia An-

Arrate Fernandez,
ezkerrean, jaialdiko
kideekin.
PUKAÑAWI JAIALDIA

drade Rendon, ekitaldia hasi baino bost egun lehenago hil zen. «Boliviarrak batekin eta argentinarrak batekin film laburren epaimahian aritzea tokatu zait niri. Film luzeak eta ertainak epaitu behar zituztenekin batera Sucreko Udalarik idatzi bat aurkeztea erabaki genuen, Pukañawi jaialdiari Katia Andraderekin izena jartzeko eska-

tuz, omenaldi gisa». Eskara horixe egitera joan zirenean, bertakoak ez zirenei merezimendu bat eman zieten. Hala izendatu zuten Fernandez Sucreko Alaba Kuttun.

MEMORIA LANTZEKO FOROAK

«Jaialdi honek asko egiten du giza eskubideen alde, eta urtean behin ekitaldia egitea lan handia da. Boliviar grabatzea arriskutsua da batzuetan eta zine zuzendariak hil dituzte. Lan merkatua oso gorabeheratsua da. Boliviar, Kolonbian, Mexikon... egiten diren dokumentalek oso maila altua daukate. Askoz ere gehiago ikeritzen da eta artxibo eta dokumentazio zentro gehiago daude. Gure memoria historikoarekin lotuta daude».

Jaialdiaren egunetako batean foro bat egin zuten memoria historikoaren inguruan.

EUSKARAREN ALDEKO SARE OSO BAT SORTU

Arrate Fernandezek Soziologia eta Irakasle ikasketak egin zituen. Unibertsitate baino lehen, antzerkiz eta dantzaz betetzen zituen kale eta plazak. Andoaingo antzerki eskolaren sortzaileetako bat izan zen. Orain, zinea eszenatik ikusten duen zinegilea da. Eta sumendi bat.

Euskal erakundeei eskatu nahi die euskararen aldeko sare edo elkarte bat sortzea, Euskaltzaindiaz harago joanen

dena, arlo guztiak barnean hartuko dituen, bertzeak bertze artxibogintza eta ikerketa. «Orain nora zoaz hori egiteko?», planteatu du.

Gure jakintza lantzeko bide bat izan litekeela defendatu du. Eta lanpostu berriak sortzeko, dokumentazioa eta ikerketa egiteko. «Badaude adituak. Asko kanpora joan dira». Euskal Herriko zazpi probintziak sartuko lirateke elkartearen aberastasun guztia bilduko litzateke.

Herrialde bakoitza bere foroa sortzen ari da: «Kolonbiak badauka, Mexiko bidean da, Boli-viak, Argentinak eta Guatema-lak badaukate, Venezuelak ez... Hego Amerika osoan zehar ba-tasuna lortu nahi dute eta oraindik zubiak eraikitzea fal-ta zaiela ikusten dute».

Fernandezek azaldu duenez, XV. mendeko suntsiketa etno-grafikoaren, indigenen saka-banaketaren eta genozidioen ondorioak sumatzen dira, bai-na oraindik ez dute gertatu ze-na aztertu. Horregatik sortu nahi dituzte ikerketa zentroak, eta zubiak eraiki. «Herrialde horietan guztietan dagoen ba-besgabetasunaren aurrean zerbait egin nahi dute, bai bai-takite gobernuak ez daudela prest gauzak aldatzeko».

«Dirua badago, beraz, zerga-tik ez duten egiten ulertzeko galderak egin beharko geni-tuzke bata bestearen atzetik».

EUSKALDUNEKIN HARREMANA

Artxibo edo zineteka bat ere egin nahi dute, Euskal Herrian gertatzen den bezala sustape-na hagitz zaila delako. «Gure-kin harreman handia daukate gorrotoa dutelako espainiar Estatuak egin zienagatik. Ba-rreanean dute hori».

Herrialdearen ondare arkeo-logiko-historikoaren ganbara egitea lehena, oraina eta etor-kizuna ulertzeko bidea da zi-negilearentzat. Ahalegin ho-rretan daude.

«Besteen lanak ikusi ditugu eta oso aberasgarria izan da. Kulturalki oso aberasgarria da gure jendarteentzat». Siner-giak sortu nahi dituzte bai He-go Amerikan eta bai Europare-kin, euskaldunekin bertzeak bertze.

Zine zuzendariak adierazi du Bolivian ez dela hain erraza emakume batentzat lan on bat



«La memoria y después» izan zen jaialdian ikusi ahal izan zen filmetako bat. Irudian, fotograma. PUKAÑAWI JAIALDIA

lortzea. Bazterketa eta beldur handia dago. Sucren unibertsitate pila dago eta irakasle bat etorri zitzaion klase bat ematea proposatuz. Merezimen-dua jaso zuen Ekonomia eta Finantzaren Campusean. «Antzerki soziala egin genuen. Inteligentzia emozionala eta espaziala aktibatzeko erabiltzen dute. Gurean ez, baina Boli-vian egiten dute hori». Hala, beren etorkizuneko lanean pentsarazi zien ikasleei.

«Beti eguraldi ona dute, kanpoan egoten dira eta komuni-katzeko behar handiagoa dute. Abilak dira horretan», erran du andoaindarrak boliviarez.

Jaialdiaren babesleak dira Sucreko Udala, Amnesty Inter-

Sucreko Pukañawi nazioarteko zine jaialdiak 15 urte bete ditu eta «Hezkuntza guztiontzat» hartu du lelotzat, «Hego Amerikan oraindik haurrak kalean daudelako lanean»

Memoria historikoarekin lotutako filmak eman dituzte, kulturen eta hezkuntzan barneratzeko baliagarriak. Errekonozimendua egiteaz gain, ikerketaren beharra agertzen dute

national, Zine eta Eskubideen Sare Iberoamerikarra, Askata-sunaren Etxea, Chuquisacako Prentsa Federazioa, BCB Kultur Fundazioa, Egiaren Batzordea, Artxibo eta Liburutegi Nazio-nalak, emakumeen aldeko Ri-goberta Menchu Fundazioa eta San Frantzisko Xabier Uni-bertsitatea, bertze aunitzen ar-tean. Giza eskubideekin lotu-tako hogei bat elkartek osatzen dute zerrenda luzea. «Bertako jendeari laguntzeko lan egiten dute Hego Amerika osoan».

MASTER OSO BAT

«Naturaren alde asko egiten ari dira. Han daude munduko Kretazeoko dinosauroen par-kerik handiena, Titicaca eta eremu oso garrantzitsuak, bai-na kutsadura handia daukate hirietan, japoniarren bigarren eskuko autoak saltzen dizkie-telako, asko kutsatzen dute-nak. Zaborraren kudeaketaren inguruan oso kontzientzia gu-txi dago. Soilik janaria lortzea-rekin arazoa daukate».

Bederatzi film labor balora-tu zituen Arrate Fernandezek, baina bertze hainbat luze eta

ertain ikusteko aukera ere izan zuen. «Astebeteetan master oso bat egin dut! Oso interesgarria izan da. Pelikulen ondorengo foroetan parte hartzen zuen jendeak. Batzuetan zuzendaria egoten zen. Sentsibilizatzeko kanpaina bat bezala izan da. Oso gauza gogorak ikusi ni-tuen, baina niretzat ikasgai bat izan da. Hainbeste ume aban-donatuta ikusita kontzientzia ukituta ere etorri naiz».

Munduak hala funtziona-tzen duela egiaztatu du: «He-rrialde nagusiak txiroei gero eta gehiago lapurtzen ari dira eta, ondorioz, horiek ez dauka-te janaririk eta baliabiderik. Etorkizunean neurri bat ego-tea beharko genuke eta denek giza eskubide berak edukitzea. Negar asko egin genuen».

SARITUTAKO FILM LABURRAK

Sariketan film labor, ertain eta luzeak egon ziren, eta horieta-ko bakoitza hiru sailetan bana-tu zuten: Bolivian egindako la-nik onena aukeratu zuten lehenbizi; Latinoamerikako herrialdeetan egindako hobe-rena gero; eta nazioarteko pe-likularik onena, azkenik.

Fernandezek baloratu zituen film laborren artean, Bolivian eta Kolonbian egina da lehen saritua, “El Temporal”, Simon Avila Brena. Ume baten desa-gerpena kontatzen du. Zuzen-dari gazte batena da, hasiberri batena. «Kasu erreala da. Ta-malez, ia egunero gertatzen dira halakoak».

Bigarren saritua “Ciudad B” da, Carolina Gonzalezena. Rap kantaria den 7 urteko haur bat du protagonista. Bestela, bera bizi den hiriko auzoan droge-tan sartuta bukatuko luke. La-gunik handiena bere aurrean hil zuten eta bera kasualitatez bizi da. «Gazte horiek, muga ekonomiko, sozial eta kultura-

lak direla tarteko, artearen bidez ekiditen dute oso goiz gaizkile bilakatzea. Gainditze historia bat da, lor daitekeela erakusten die besteei».

Hirugarren irabazlea, “Balón F.C”, Raul San Roman Otegirena da. Kolonbiako ume bat agertzen da meatze batean. Jolasean ez, lanean. Esnatu eta zer egiten duen kontatzen du. Beste haur bat egurra bildu, pilatu eta saltzen aritzen da. Denak 7 urtetik beherakoak dira, neskak eta mutilak, Kolonbiakoak, Paraguaikoak... Denak futbol talde batean elkartzen dira. «Ezin dira eskolara joan eta hori da beren ilusioa. Sinbolikoa eta oso futurista da».

IRAK, GERRA; SIRIA, BELDURRA

Boliviako Alan Zambrana Lineoren “Tito, el compañero Simón” lanak, azkenik, aipamen berezia jaso zuen. Diktadura garaian ez dago epaiketa justurik, ezta memoria historikorik ere. Neska gazteak agertzen dira, txikiak zirenean gurasoak hil zizkieten eta ezin zuten eskolan erran. 7 urterekin ez zekiten ezta beren izena ere.

«Orain halako gertaerak azaleratzen ari dira. Memoria historikoaren aldeko pelikula dira, kulturen eta hezkuntzan barneratzeko baliagarriak. Hildako eta desagertutako pertsona horiei errekonozimendua egiteaz aparte, ikertzen jarraitu behar dela aldarrikatzen dute».

Gehienak dokumentalak dira. Testigantzak ematen dituzte. Fikzio gutxiago dago. «Dokumentaletan oso estilo ezberdinetan egiten da kontakizuna. Pertsonaien egunerokoa estu lotua dago herrialdearekin. Irakeko filmak gerra erakusten du, Siriara eramaten zaituztenean beldurra sentitzen duzu... Mundua giza es-

«GURE KRISI SAKONA HARREMANENA DA»

Kanpokoan begiradak zenbat lagun dezakeen konturatu da Arrate Fernandez Sucreko zine jaialdian. «Horregatik da hain garrantzitsua harremanak egitea, beldurrik gabe, gure artean eta besteekin, asko aberasten garelako elkarrekin. Gure krisi sakona ez da ekonomikoa; gure arteko harreman ezak, ezin ikusiak, blokeoak sortua da. Erlazionatuz, agian ez dugu saminaz hitz egingo, baizik eta proiektuez». Ikusi dituen filmek hasiera

kubideen aldetik nola dagoen adierazten dute».

SEGITUAN ELKAR ULERTU

Kolonbia, Mexiko, Argentina eta Boliviako adituekin batera, foro batean parte hartu zuen Fernandezek. «Indigenismoa, politika eta zinemagintza izan genituen hizpide eta ohartu ginen begietara begiratzea nahikoa zela guztioi zer gertatzen zaigun ulertzeko».

26 hizkuntza dituen Bolivian, indigenen arteko bizikidetzan dabilta. Andoaindarrak Arte Ederretako doktore bat ezagutu zuen. Edward Arandia izena du. «Ama indigena du eta aitona euskalduna. Euskalduna izanik galdera asko egin zizkidan. Nondik datozen jakiteko beharra dute. Elkarrizketa sakonak izan ditugu. Oso polita eta interesgarria izan da».

Bere aurkezpenean, Euskal Herria geografikoki non dagoen eta gure jatorria zein den azaldu zuen andoaindarrak lehenik, hori zelako egunero galdetzen ziotena, uste zuena baino gehiago. «Oro har guri buruz iritsi zaiena oso urria da eta interes handia dute. Gure zeregina ere bada zubiak erakitzea eta ederra da eurekin hitz egitea. Euskarari buruz hitz egin nien, historiaurrekoa

dramatikoa dute, baina gero egoerari buelta nola ematen dioten kontatzen dute, zergatik erabakitzen duten sufrimenduan bizi beharrean hortik ateratzen saiatzea eta nola bilatu irtenbidea.

«Itxaropenerako mila leiho daude, baina erne egon behar da erabakitzeko. Bestela pasibo zaude, normala dela pentsatzen. Aldaketa soluzio bat da. Irtenbiderik bilatzen ez baduzu arazo gehiago sortuko dituzu», hausnartu du.

dela nabarmenduz. Historia ere aipatu nien, kobazuloetatik museoetara. Elkar elikatu genuen, kultur trukea eginez».

EUSKAL ZINEMAGINTZAZ

Zinemagintzaren inguruan ahozko tradizioetik idatzizkora pasatu ginela kontatu zien eta idatzizko horretan gure ipuinak eta kantuak jaso zirela eta gure dantzak eta musika herriaren ukituarekin lotuta daudela ere bai. «Zinea azken mendean sortu zen. Zuri-bel-tzean eta mimika bidez egiten zen eta euskaldunak beren olerkietan, antzerkian eta kulturen oinarrituta zinea egiten hasi ziren. ‘Amalur’ eta ‘Tasio’ dira aitzindarietako batzuk».

Fernandezek kontatu digunez, boliviarrak espainiar Estatuaren ikuspegia jaso dute, ez zaizkie iritsi gure filmak. Hor-taz, zinegileak pasarte batzuk

erakutsi zizkien. «Ez Dok Hamairuz hitz egin nien. Loraldi hartaz. Zinemagintzan ere aldaketa egon zen. 80ko hamarkadan pelikula politiko eta konprometituak egiten hasi ziren beharra zegoelako memoria berreskuratzeko».

Ez zuten denborarik izan solasaldia amaitzeko eta bazkari batean jarraitu zuten. «Beren artxibo historikoan informazio hori jaso nahi dute. Halako lanak egiten ari diren unibertsitateko irakasle batzuk etorri ziren, eskolak ematen eta aldi berean ikertzen dabiltzanak, eta interes handia dute». Boliviara itzultzeko gonbidapena baduela erran digu Fernandezek irriz. «Lagun asko egin ditut, egia esan».

«MADDI ETA PATXI»

2015ean egin zuen “Maddi eta Patxi” film laburrak eraman zuen zinegile euskalduna Boliviako jaialdira. «2003an ‘Ekin-tzen ispilu garden’ egin nuen, 2005ean ‘Arbasoen argi iraunkorra’, baina gero dirulaguntzak urritu ziren eta krisialdia hasi zen Euskal Herrian. Brasilerara joan nintzen eta korapilo bat askatu beharra nuela ohartu nintzen. Eta ‘Maddi eta Patxi’ sortu nuen».

Lekeitioko zine jaialdian hautatu zuten eta gero jaialdietara bidali zuen, bertzeren artean Pukañawira. Eta horregatik deitu zioten epaimahai-kide izateko.

Bere azken film laburra, “Begi ninien koreografia”, Durangoko Azokan aurkeztu zuen andoaindarrak 2018an. Euskal Herriko 50 zine aretotan ez ezik, London, Paris, Valladolid eta Valentzian ere ikusi ahal izan da. Edorta Jimenezen poema batean oinarritutako lana lau hizkuntzatara itzuli dute eta bidea egiten ari da.

Saritutako film laburretako bat «Balón F.C.» izan da, Raul San Roman Otegirena. 7 urtetik beherako umeak agertzen dira lanean. Denak futbol talde batean elkartzen dira

Gehienak dokumentalak dira. Fikzio gutxiago dago. Pertsonaien egunerokoa estu lotua dago herrialdearekin. Mundua giza eskubideen aldetik nola dagoen erakusten dute

PINOCHETEN TORTURAK

Liburu batean bildu dituzte Txilen tortura ikertu zuen «Valech txosteneko» pasarteak

Salvador Allende presidentearen kontra Augusto Pinochetek zuzendu zuen estatu kolpearen ostean Txilen ezarritako diktaduran tortura egin zela gauza jakina da. 2003tik 2004ra bitartean, Sergio Valech apezpikua buru izan zuen ikerketa batzordeak diktadura garaiko tortura testigantzak bildu eta argitara eman zituen “Valech txostenen”. Ordura arte, «gehiagikeria» hutsak izan zirenak, praktika sistematikoak izan zirela aitortu behar izan zuten tortura estatu politika bat izan zela ukatzen zutenek. Orrialde luze horietan jasotako lekukotasunak izugarriak dira, batez ere, sexu biolentziari dagozkionak.

Orain, Daniel Hopenhayn kazetariak “Valech txostenaren” pasarte esanguratsuenak bildu ditu “Horrela torturatu zen Txilen” izeneko liburuan. Estatu kolpearen 46. urteurrenaren testuinguruan argitaratu zuen irailean.

Diktaturak torturatzeko erabilitako metodologia oinarri hartzen du. Torturak bereziki gordinak izan ziren emakumeen kontra. «Metodo horietako asko jada antzinako Grezian aurkitzen ditugu. Txileko militarren kasuan, armada frantsesak 50eko hamarkadan ‘terrorismoaren kontra’ erabili zuen gidaliburuan azaltzen direlako erabili zituzten. Frantsesek Aljeriako batailan, 1957ean, erabili zuten lehen aldiz aipaturiko gidaliburua, Indotxinako guda galdu ostean, hain zuzen. Aljerian izandako militar frantsesek erabili zituzten teknikak estatubatuarrei erakutsi zizkieten 60ko hamarkadan eta, jarraian, estatubatuarrek Latinoamerikako militarrek teknikotan tre-

 **ATZERRIA** / Ainara Lertxundi

Salvador Allende presidente txiletarraren kontrako estatu kolpearen 46. urteurrena bete denean, Daniel Hopenhayn kazetariak «Valech txostenaren» pasarte esanguratsuenak bildu ditu «Horrela torturatu zen Txilen» liburuan. Tortura, sexu biolentzia barne, bereziki bortitza izan zen atxilotutako emakumeen kontra.

batu zituzten mugimendu ez-kertiarren kontra egiteko», azaldu du Hopenhaynek.

Ricardo Lagos presidentearen agintaldian (2000-2006) “Valech batzordeak” egindako txostena goraipatu du Hopenhaynek. 500 orrialde ditu.

«XX. mendean herri askotan izan zen tortura estatu politika, baina ez zuten beste inon egin Txilen egindakoaren tamainako ahalegina gertatutakoa ezagutzeko. Horregatik, nire ustez, dokumentu hau barkarra da. Tamalez, hain luzea

eta mardula denez, apalategietan gelditu da. Nire helburua guztiontzat eskura izatea zen. Horregatik, ahaztu ezin ditza-kegun pasarte esanguratsuenak jaso eta formatu ulergarriago eta eskuragarriagoan eman ditut», azaldu du.

Kazetariaren aburuz, berebiziko garrantzia du ez soilik Txileko memoria historikoa eraikitzeko, baizik eta torturaren dimentsioa ulertzeko. «Pasarte batzuk azaldu ezinak dira, ez dago hitzik horiek deskribatzeko, gure imajinaziotik haratago baitaude. Emakumeen kontrako sexu biolentzia izugarria, itzela izan zen. Eromena», nabarmendu du.

Atxilotuak bortxatzeko txakurrak erabili zituzten Pinochet-en militarrek, baginan arratoiak sartu zizkieten emakumeei, zigarroekin erredurak egin. “Valech txostena” idatzi zuen Espetxealdi Politikoa eta Torturaren Batzorde Nazionalak 3.399 emakumeren lekukotzak jaso zituen. Horietatik 229 haurdun zeuden atxilotu



La Moneda jauregiaren aurrean 1973ko irailaren 11ko estatu kolpearen 46. urteurrena salatzeke eginiko elkarretaratzea.

Martin BERNETTI | AFP

zituztenean edo bortxaketen ondorioz haurdun gelditu ziren. Horietatik, hogei batek umea galdu zuten. Atxilotu zituzten emakumeetatik, gutxienez 316k bortxaketak jaso zituzten eta 11 jada haurdun zeuden bortxatu zituztenean.

«Torturatzailleen bortxaketen ondorioz haurdun gelditu eta espetxean galdu nuen umea. Nirekin batera aita eta anaia zeuden atxilotuta. Haiekin sexu harremanak izatera behartu ninduten. Aita eta anaia nola torturatzen zituzten ikustera behartu ninduten. Modu askotara torturatu ninduten. Beso eta hanketatik zintzilikatu ninduten, elektrodoak jarri zizkidaten, itolarria eragin zidaten, drogak hartzera behartu ninduten, arratoiak sartu zizkidaten baginan eta txakuraren sexu erasoak pairatu nituen, zigarroekin erredurak egin zizkidaten eta labana handi batekin mozketak egin zizkidaten sabelean». Hopenhaynen liburuak «Valech txostenean» ageri den testigantza hori jasotzen du. 1974an atxilotu zutenean 25 urte zituen lekukotza eman zuen emakumeak eta bi urtez egon zen preso bere kontrako auzirik gabe.

Torturek ez zuten neurrik. Maulen, 1973an atxilotu zuten 14 urteko neskato bati hiru militarri sexu orala eginarazi zioten. «Ez dakit ez nortzuk ziren ez nolakoak ziren ere, burua estalita zuten eta. Dakidan bakarra da nire bizitza ez dela inoiz berdina izango».

Ondorengo 16 urteko beste gaztetxo baten lekukotasuna da. DINA Pinocheten poliziak bahitu zuen. «Bortxatu egin ninduten, elektrodoak eta arratoiak jarri zizkidaten soinean, esku-ohe batean ipini eta hezitako txakurrekin bortxatu ninduten». Santiagon



atxilotu zuten 17 urteko beste emakume batek bortxaketa sistematikoak jasan zituen, baita uteroan erredurak ere.

Batzordeak jaso zituen lekukotzen arabera, haurdun zeuden hogeik bat emakumek galdu zuten umea. «30 urte eta gero negar egiten jarraitzen dut». Hiru hilabeteko haurdu-

Diktadura garaiko biktimak oroitzeko, pasaden irailaren 11n Santiagon eginiko mobilizazioa.
Martin BERNETTI / AFP

naldia zuen buruzagi sindikal bat bera bortxatzea behartu zutenean. Bularrean, ezarrarian, hanketan eta sabelean elektrodoak jarri zizkioten. Puerto Montten gertatu zen, Santiagotik mila kilometrora.

Hopenhaynek nabarmendu bezala, «gizarteak ezin du tortura bere gain hartu ez badaki

nola torturatu zen. Gauza ez da torturaren balizko erabilgarritasunaren gainean bi aldiz pentsatu behar izatea, orduan berriro gertatuko baita. Torturan pentsatze hutsarekin nazka eta arbuioa sentitzea lortu behar dugu gizarte bezala. Horretarako, torturaren metodologia ezagutu behar dugu».

SEXU BIOLENTZIA, URTETAN ISILPEAN GORDETAKO TORTURA

Lelia Perezek 16 urte zituen lehen aldiz atxilotu zutenean 1973ko irailaren 12an, estatu kolpea izan eta hurrengo egunean. Aske utzi zuten. 1975eko urriaren 24an berriro atxilotu zuten bere bikotekidearekin batera. Zortzi asteko haurdunaldia zuen. Villa Grimaldira eramane zuten eta ondoren Cuatro Alamos eta Tres Alamos kontzentrazio esparruetara. 1976an, aske gelditzean, Venezuelara alde egin zuten.

Torturen ondorioz umea galdu zuen. GARAK 2013ko irailean, estatu kolpearen 40. urteurrenaren atarian, egin zion

elkarrizketan aditzera eman zuenez, «militarrek ez zuten salbuespenik egin emakumeen kontrako sexu biolentzian. Atxilotuekiko zuten boterea berresteko modu bat bihurtu zen. Gizonezkoei garaituak izan zirela adierazteko baliatu zuten sexu biolentzia, bai gure bikotekideen bai emakumeen erresistentzia suntsitu nahi zuten».

Perez Santiago Estadio Nazionalen bortxatu zuten. Hori gertatu eta 25 urte geroago, berarekin batera atxilotuta egon zen kide batekin topo egin zuen. Bortxaketaren lekuko izan zen, baina

isilik gelditu zen. «Bortxatzen ninduten bitartean, militarrek koldar hutsa zela oihukatzen zioten. Berriro elkartu ginenean, pasarte hura gogoratu genuon biok negarrez. Barkamena eskatu zidan momentu horretan deus ere ez zuelako esan eta bortxaketa torturaren baitan kokatzeagatik. 'Bi alaba ditut orain... Nola da posible isilik gelditu izana?', esan zidan. Elkarri besarkada bat eman genion. Sendagarria izan zen biontzat», gogoratu zuen Perezek. Izan ere, atxilotuen kontrako sexu biolentzia isilpean gorde zen luzaroan Txilen.



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

Kokzigodinia edo ipurdiko mina

Populazioan gutxitan gertatzen bada ere (bizkarreko minen artean %1 inguru dira), fisioterapia zentroetan sarri tratatzen da kokzigodinia..

Kokzix edo uzkornoko mina arazo deserosoa da, inondik ere: pazientearen eguneroko bizitza asko baldintzatzen du, ezin delako ondo eseri. Kezka handia sortzen duen arren, kasuen %90 ondo konpontzen dira kirurgia erabili gabe. Jakin dezagun bada, zer den kokzigodinia.

Uzkiaren gainean dauden orno txiki hauek, jatorriz, gure aurreko espezieen buztanaren aztarna dira. Eskuarki hiru-bost ornok osatzen dute, baina haietako batzuk soldatuta egoten dira. Bizkarreko beste giltzadurek bezala, kokzixak baditu bere artikulazioak (sakro-kokzix eta ornoen artekoak), bere muskuluak (gluteus maximus eta coccygeus) eta lotailuak (corpus anococcygeum). Bere egitura, halere, asko alda daiteke pertsona batetik bestera: orno arteko diskoak, giltzadura motak, mugikortasun maila desberdinak presente egon daitezke edo ez, kasuaren arabera. Ia beti, lehen eta bigarren zatiaire artean disko antzeko bat egoten da; egitura hori garrantzitsua da, traumatismoen ostean izaten diren min askorekin zerikusia izaten duelako. Izan ere, kokzixaren min gehienak traumatismo zuzenekin lotuta daude: kolpe handiak (ipurdiz erortzea, ostikada jasotzea...) zein txikiak (bizikletaren eserlekua, zaldiz ibiltzea...). Emakumeen kasuan, erditzean umekiak eginiko presioaren ondoriozko kokzigodiniak ere sarri ikusten ditugu.

Sintoma nagusia esan dugu jada: esertzean mina. Min hori kokzixean igarri ohi da, baina ez da arraroa izaten min hori izter, gerri edo pelbis inguru-

ra zabaltzea. Gainera, inguruko giltzaduren mugimenduarekin (komunean, oinez...) areagotu egin daiteke.

Diagnostikoa egiterakoan garrantzitsua izango da bereiztea minaren jatorria kokzixa bera den edo inguruko beste egituraren bat (pelbiseko hainbat elementuk irradiatu baitezakete mina zona horretara); horrek, bistan da, tratamendua norabide batean edo bestean bideratu behar dugun erabakitzerakoan asko lagunduko du. Diagnostikoa nagusiki azterketa fisikoan datza (alegia, kokzixa eta inguruko egituren mugimendua aztertzean), baina erradiologia probek ere informazio osagarri balioetsua eman dezakete.

Tratamenduari dagokionez, neurri ortopedikoak daude, hala nola esertzean kokzixaren presioa arintzen duten kuxinak erabiltzea. Farmakoek ere laguntzen dute, izan piluletan hartuta izan injekzioen bidez minaren jatorrian aplikatuta. Fisioterapiari buruz, hainbat bide erabiltzen ditugu kokzixeko biomekanika (artikulazioak eta muskuluak) orekatzeko: esku terapia, hidroterapia, termoterapia, elektroterapia, zoru pelbikoaren ariketak... Orokorrean, tratamendu horiekin hobekuntza nabarmena lortzen da, baina, horrela ez denean, bada kirurgiara jotzeko aukera ere. •

www.abante.eus



Kokzigodiniaren sintoma nagusia esertzean nabaritutako mina da.

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Estatuaren jokabideak bere kontakizuna gezurtatzen du

Kontakizuna, errelatoa bihurtu da aspaldi hizpide nagusietako bat, askorentzat horixe baita kezka eta horren arabera aritzen baitira jardun politikoan, hamarkadotan gertatutakoari buruz bertsio jakin bat gailendu dadin, Francoren heriotzaren ondotik abiarazitako trantsizio politikoa zuritzeko eta hura zalantzan jartzen duen edozer baztertzeko. «Errelatoaren bataila» deitzen diote, egiarena izaterik ez baitu hainbeste gezurrekin. Ez genuen, bada, egirik esperoko! «Bai, diktadura batetik gatoz estatu egiturak garbitu gabe. Botere faktikoek mugatutako Estatua da gurea eta indarkeria, modu eta era guztietan, erabili dugu horri eusteko; eta ez, ez diegu estatutik gabeko nazioei dagozkien eskubideak onartuko. Bai, herrien kartzela gara eta, behar izanez gero, torturatu egingo zaituztegu». Beste bat izan behar da, alafede, kontakizuna.

Kontakizun horrek bi oinarri ditu: zuzenbide estatu demokratikoa da Espainia eta hori zalantzan jartzen dutenek indarkeria erabiltzen dute, edo erabiltzeko asmoa dute. Euskal Herrian bistan da horrela izan dela, ETak armak hartu zituela Estatu espainolari aurre egiteko, baina ez da horrela izan Katalunian azken urteotan garatutako prozesuan, eta horregatik saiatzen ari dira orain, berriro ere Auzitegi Nazionala erabiliz, «indarkeriaren» faktorea tartean sartzen, Katalunian gertatutakoa guztiz kontrakoa izan bada ere. Deigarria dena justu horixe da, hain erantzun bortitz gutxi egon izana Estatuaren gehiegikerien aurrean. Munduko edozein gatazkarekin edo liskarrekin alderatzea besterik ez dago. Harrika ere ez dute egin-eta manifestariak!

Nolanahi ere, indarkeriari buruzko aipamena munitzio bilakatu dute, Auzitegi Gorenak kaleratutako duen sententzia justifikatzeko eta Kataluniako herritarrek sententzia horri emango dioten erantzuna zanpatzeko Estatuak hartu ahal dituen neurri errepresibo berriak

justifikatzeko. Sarkasmoa ere bada Estatu espainolak besteei leporatzea indarkeriaren erabilera. Aitortu behar harko diogu ETari egia esan zuela Euskal Herrian indarkeria ez zela berarekin hasi eta borroka armatua utzi zuenean indarkeria ez zela desagertu esan zuenean. Katalunian indarkeria Estatuak baino ez du erabili.


Kontakizunaren guda irabazteko Estatua erabiltzen ari den guztiak, ordea, justu kontrako ondorioa izan dezake. Denborak esango du, baina bere ekinbidetik eta mezuetatik ondorioztatzen dena ez dator bat utzi nahi duen kontakizunarekin. Bistakoa da, adibidez, Euskal Herrian. Hemen ez zegoen konponbiderik behar zuen arazo politikorik. Gaizkile talde bat, hori zen dena. Eta nonbait, esate baterako, 47 lagunek Auzitegi Nazionalen ETako kide izan izana formalki onartzeak

Kataluniakoak zer izan behar du, terrorismo arazo bat? Kontakizuna ez ote da izango Espainiak bai Euskal Herrian bai Katalunian arazo politiko bera duela?

errelato hori indartzen du, AVTk eta enparauek esan dutenez. Seguru? Auzitegi Nazionalak bideratu dituen prozedura judizialen arabera, ETak milaka kide izan ditu, horietako asko pertsona ezagunak eta estimatuak; mugimendu zabalak egituratzeko gai izan da, hainbat herri ordezkari, intelektual eta ideologi ezberdineko hautetsi inplikatur; kulturen, hezkuntzan, gizarte eremu guztietan eragina izan du... Seguru horrek denak Estatuaren bertsioa indartuko duela?

Eta, orain, Kataluniakoak zer izan behar du, terrorismo arazo bat, Torra eta Puigdemonten ardurapean? Azkenean kontakizuna ez ote da izango Espainiako Erreinuak bai Euskal Herrian bai Katalunian arazo politiko bera duela bi naziootako herritarrei bere etorkizuna erabakitzen uzten ez dielako? •

Jon Kareagak argi dauka «fast fashion» delakoa ez dela inoiz jasangarria izango. Berak eta Mondragon Unibertsitateko beste bi ikaslek langileen eskubideak eta ingurugiroa errespetatuko dituen arropa tailerra ireki nahi dute. Gazte zumaiaarra Bangladeshen izan zen apirilean, Rana plazako hondamendia gogoan.
Jon URBE / FOKU - GAUR8



ESKULTURA ETA AMETSA

Hiru euskal gaztek arropa tailer bat ireki nahi dute Bangladesheko hiriburuan

 **JENDARTEA** / Iker Bizkarguenaga

Eskultura bat da Rana plazako hondamendiak utzitako arrasto bakarra. Edo ia bakarra. Izan ere, mila hildakotik gora eragin zituen istripu hark hiru euskal gazteren bihotza uzkuritu eta euren bizitza alda dezakeen egitasmoa abiatzera bultzatu ditu. Arropa tailer bat ireki nahi dute, eta, bide batez, ehungintza industria eraldatu.

Bangladeshen ehungintzan aritzen diren enpresaburuentzat, eraikin soil bat; eraikin horretan lanean zebiltzan 1.135 lagun enparentzat, dena;

eta munduaren beste puntan gaudenontzat, errealitate deseroso bat ikustea galarazten zigun benda. Gauza asko erori ziren 2013ko apirilaren 24an. Rana plazako hondamendia ehungintza-industrian inoiz izandako handiena da, eta ai-

patutako 1.135 hildako horiez gain –gehienak emakumezkoak–, 2.500 zauritu eragin zituen, horietako asko oso larri. Eroritako eraikinean bost lan-tegi zeuden, eta bostek Euro-pako eta AEBetako marka eza-gunentzat arropa egiten zuten. Egun horietan, noski, zalaparta handia sortu zen, eta ahots askok langileek pairatzen zituzten lan eta bizi baldintzak salatzen zituzten. Agintariek zein enpresariek hitza eman zuten: «gauzak aldatu egingo dira». Baina apenas aldatu dira. «Han eskultura bat dago, besterik ez». Jon Kareaga oso gaztea zen tragedia hura gertatu zenean, 15 urteko nerabea, eta ia ez du gogoan. Baina eza-gutu, bai, Dhakan jazotakoa ondo ezagutzen du, geroago ikusitako dokumentalei eta irakurritako materialari esker.



Eta gertaera latz horrek hain-
beste markatu du, ezen duela
hilabete batzuk Bangladeshera
joan zen hango errealitatea
bertatik bertara ezagutzera.
Ezagutu zuenak gogor kolpatu
zuela aitortu digu, “Bask” egi-
tasmoaren istorioa kontatzen
hasi zaigunean.

EURO ETA ERDI EGUNEAN

Mondragon Unibertsitatean
Lidergo Ekintzailea eta Berri-
kuntza (LEINN) ikasten ari da
21 urteko zumaiarra, eta ikas-
keton eskutik Txinan zegoen
iragan apirilean, bertako en-
presa ekosistema ezagutzen
eta, bide batez, dokumental
bat egiten. Horretan zebilen,
azken unean Bangladeshera
joan behar zuela erabaki zue-
nean. Rana plazan jazotakoa
gogoan, errealitate hura eza-
gutu behar zuela uste zuen,
«bai edo bai». Eta bisatuarekin
zituen zalantzak argituta, ha-
rantz abiatu zen.

Bakarrik joan zen, eta, adie-
razi duenez, «sekulako espe-
rientzia izan zen». «Konfort
eremutik atera eta horrelako

toki batera joatea izugarria
izan zen, eta leku horrekin ko-
nektatu nuen», azaldu du.

Bertan, «inoiz pentsatuko ez
nituen egoerak» bizi izan zi-
tuela nabarmendu du. Adibi-
dez, 14 urte zituenetik lanean
ari zen gaztetxoa ezagutu iza-
na. «Egunean euro eta erdi ko-
bratzen zuen, ordu pila sartu-
ta. Ikasketa minimorik ez zuen
mutil koxkorra zen –16 urte zi-
tuen ezagutu zuenean– eta
beste dozenaka lagun en arte-
an lanean ari zen». Oro har, la-
nean itota zebilen jende «oso
pobrea» ezagutu zuen Bangla-
deshen. Segurtasunari dago-
kionez, gauza batzuk duela sei
urte baino hobeto daudela ai-
patu du Kareagak, baina
«oraindik gauzak oso gaizki»
daudela. «Egoerak hobera egin
du txarragoa izaterik ez zuela-
ko, baina bide luze-luzea dago
egiteko», bere ustez.

«Dokumental bat egiteko
Asiara joandako 21 urteko Men-
debaldeko gazte bat» zela aipa-
tu du zumaiarrak, nabarmen-
duz «hamar mila kilometro
arazo gabe» egin zituela. Eta

**Jon Kareaga Bangladeshera joan zen apirilean,
Rana plazan gertatutakoa gogoan eta bertako
egoera ezagutzeko asmoz. «Inoiz pentsatuko ez
nituen egoerak» ikusi zituela kontatu du**

**Berak ere zerbait egin zezakeela pentsatuta,
arropa tailer bat irekitzeko proiektua abiatu
zuen. Hiru lagun dabilta eta dirua biltzen hasi
dira. Beraien webgunea «www.bask.eus» da**

gaineratu du helmugara heldu
eta bere kamerarekin «lanean
zebilen ume bat grabatzen» ari
zela jabetu zela «planeta hone-
tan dagoen injustiziaz». «Bizi-
takoak dena goitik behera bir-
planteatzera eraman nau: zer
erosten dudan, zer ez dudan
erosi nahi... Nik horrelako prak-
tikak onartzen dituen enpresa
bati ezer erosteak praktika hori
sostengatzen dudala esango lu-
ke», adierazi du zumaiarrak.

Eta kontakizunarekin jarraitu
aurretik, Jonek hauxe aitortu
du: ez zuen etxean esan Ban-
gladeshera joango zenik.
«Amak Txinan nengoela uste
zuen, unibertsitatearekin. Ezer
ez esatea erabaki nuen, izan
ere, berdin-berdin joango nin-
tzen, eta alferrik zen ardura
eragitea. Txinatik itzultzean hi-
ru egunetan Bangladeshen
egon nintzela esan nion. Tira,
dagoeneko nire gurasoek edo-
zer espero dute nigandik».

EZINTASUNA VS EKIMENA

Bangladeshen ikusitakoaren
ondorioz, «oso momentu txar-
rak» igaro zituen Kareagak.
«Nolako amorrua, nolako inpo-
tentzia, ezer egiteko ezintasun-
a», oroitu du. Baina ez zen
sentimendu horietan kateatu.
Izan ere, azaldu duenez, «gero
konturatzen zara pertsona txiki
askok gauza handiak egin di-
tzaketela, eta nik pertsona ho-
rietako bat izan nahi dut».

«Bangladesheko errealitatea
aldatu nahi dut, eta horretara-
ko hau egitea pentsatu dut»,
esan digu ikasleak. Proiektua-
ren ideiaz galdetzean azaldu
digu jakin zuela Gipuzkoako
Aldundiaren deialdi bat baze-
goela, zeinaren arabera, egitas-
moan norbaitek proiektuan
euro bat jartzen badu, Aldun-
diak beste euro bat jartzen
duen. «Aukera bikaina zela
ikusi nuen; proiektua aurkez-
tu nuen, aukeratua izan zen,
eta orain hor gaude, hau au-
rrera atera nahian. 10.700 eu-
ro behar ditugu, eta lehenengo
egunetan oihartzun handia
izan dugu». Dagoeneko 1.500
euro dauzkate, eta oraindik
40-60 egun dituzte aurretik.

Pluralean hitz egiten du, be-
rarekin batera Mondragon
Unibertsitateko beste bi ikasle
baitaude bide honetan, Maddi
Bercianos eta Apurva San
Juan. Biek bat egiten dute Ka-
reagaren «ideia, pasio eta ba-
lloekin», eta gogoz batu dira
ekimenera. Ez dute lan erraza,
Zumaian, Hendaian eta Gas-
teizen bizi baitira, baina Skype
bitartez moldatzen dira: «go-
goa dagoen bitartean ez dago
arazorik».

Tailerra martxan jartzeko
modua ere pentsatuta dute,
eta ikusita beren kabuz ezar-
tzea gastu handia izan daite-
keela eta tramite asko eska di-
tzakeela, beren asmoa bertako

enpresa batekin elkarlanean proiektu bat hastea da. «Balio hauekin bat datorren enpresa batekin jardun nahi dugu», azaldu digu Jonek. «Guk ahalik eta diru gutxienarekin eragin positiboena izan nahi dugu, eta horretarako bidea hori dela uste dugu», gaineratu du.

Bazkide izateko hautagaiak bilatzen hasi dira, eta pertsona batzuekin harremanean jarri dira. Esan duenez, «jende asko dago gauzak egin nahian».

Eta, Euskal Herrian? Ba al dago gure herrian ohiturak aldatzeko gogorik? Izan ere, industria honen atzean arropa erosten duen jendea dago. Herrialde aberatsetan bizi den kontsumitzailea, prest al dago bere arropagatik diru gehiago ordaintzeko? Kareagak baietz uste du. Bere aburuz, «kontua da ze pertsona motak inspiratzen zaituen», eta sare sozialen garrantzia azpimarratu du. «Sarean ikusten duguna buruan sartzen zaigu, eta enpresek hori ondo ikertuta daukate, ea zer egin behar duten zuk beren produktua erosteko».

Ildo horretan, ikasle gipuzkoarrak uste du sareetan eragin handia duten pertsonak asko lagun dezaketela kontzientzia zabaltzen, inspirazio iturri bezala, baina kontrako lana ere egin dezakete. «Instagramer edo blogger batzuen kontuetan sartzen bazara, ikusiko duzu Zara edo H&Mren katalogoak direla. Eta batzuentzat idoloak dira», aipatu du.

INGURUGIROARI KALTE HANDIA

Lan baldintzena, dena den, ez da ehungintza industriari egin dakioken kritika bakarra. Ingurugiroari egiten dion kaltea ere ez da nolanahikoa, eta Nazio Batuek eurek ere zuzenean seinالاتu dute esparru horre-



Langileek Bangladesheko tailerretan pairatzen dituzten baldintzak oso gogorrak dira, eta asko adingabeak direla hasten dira lanean.
Jon KAREAGA

Moda bigarren industria kutsakorrena da eta kalte larriak eragiten ditu ingurugiroan. Urari dagokionez, adibidez, kotoizko kamiseta bat egiteko 2.700 litro ur edangarri behar dira

Europako eta AEBetako enpresek presio handia egiten dute oihala oso merke jasotzeko, eta, hornitzaile batek ez baditu beraien baldintzak betetzen, beste batengana jotzen dute

tan duen arduragatik. «Modarena munduko bigarren industria kutsakorrena da», azaldu du Jonek, nabarmenduz bere eraginak, gainera, ez ditugula hemen sumatzen, hots, kontsumitzaileon herrialdeetan, baizik eta arropa ekoizten den lurraldeetan. Adibide bat aipatu digu, ur edangarriarena: «Oso ur gutxi daukate, moda delako ur edangarri gehien erabiltzen duen bigarren industria. Kotoizko kamiseta bat egiteko, 2.700 litro ur behar dira, eta, galtza batzuk egiteko, 11.000 litro inguru. Atera kontuak».

Pestizidek ere sekulako kalteak eragiten dituzte herrialde horietako landa eremuetan. «Kotoia erein behar dute eta kotoi zelai pila dago, eta horietan pestizidak erabiltzen dira, inolako segurtasun neurririk gabe». Horrek ondorioak ditu ingurugiroan eta bioaniztasunean, jakina denez, baina baita langileen osasunean ere. Eta horrekin guztiarekin batera, arropa koloreztatzeko erabiltzen den tinduaren arazoa dago. «Nik laranja koloreko ibaiak ikusi ditut», azaldu digu Kareagak.

Adierazi duenez, jarrera horren atzean ez dago axolagabekeria edo ardura faltarik, edo ez hori bakarrik behintzat. Berak oihalak prestatzen dituen tailer horietako arduradun batekin hitz egiteko aukera izan zuen, eta hauxe esan zion: «Nik ez dut ingurumena suntsitu nahi, baina bezeroek exijitzen didate produktua prezio batean eta kolore batekoa izatea, eta, nik hori ematen ez badiet, ez dute arazorik beste hornitzaile batengana joateko, beraientzat errentagarritasuna bakarrik delako garrantzitsua». Ataka horretan, hornitzaileak «ezin du besterik egin, sekulako presioa baitauka. Gauzak ondo egiten baditu, ezin izango du lehiatu».

Arazoa, beraz, hornitzaileari presioa egiten dion bezeroan dago, hots, guri arropa merke merke saltzen digun enpresan. Baina, kontsumitzaileak jabetzen al gara hori horrela dela? Pentsatzen ote dugu nola den posible ogitarteko baten prezioan alkandora bat erosi ahal izatea? «Nik uste jendea ez dela jabetzen, bestela ez luke arropa hori jantziko. Baina normala ere bada, enpresek diru mordoak gastatzen dute guk produktuok erosteko, gainera

‘jasangarritasun’ hitza erabil-
tzen dute jasangarriak ez di-
ren gauzak definitzeko. Begiak
ireki behar ditugu, aukerak
egon badaudelako; horietan
arreta jarri behar dugu kon-
tsumo arduratsua egiteko».

Aukera horien artean, dena
den, ez dago, inolaz ere *fast
fashion* deritzon hori. «Berdin
dio ze etiketa jartzen dioten
edo zer egiten duten, urtero
bilduma pila ateratzen dute
eta horrek ezin du inolaz ere
jasangarria izan», nabarmen-
du du Jonek, gaineratuz «bost
euroko soldata batek» ezin
duela lan egiteko sistema
onargarri baten atzean egon;
«ezinezkoa da». Beste marka
batzuk badaudela ere aipatu
du, «praktika askoz jasanga-
rriagoak eta etikoagoak dituz-
tenak». «Handiak eta poten-
teak dira, baina gardentasun

handiagoa daukate, beren
produktuak non egiten dituz-
ten, ze baldintzetan eta ze
soldatekin azaltzen dute»,
gaineratu du, nabarmenduz
«gardentasun hori beti exiji-
tu behar dela. Izan ere, adie-
razi duenez kontsumitzaileok
kontuan hartu behar dugu
arropa modu horretan ekoiz-
ten duten markak «gu engai-
natzen saiatuko direla beti»,
eta, beraz, «dena zalantzan ja-
rri behar dugula». «Edozein
markarekin egin behar dugu,
‘Bask’ berarekin ere bai. Dena
galdetu behar da: zertan ari
garen, nola produzitzen du-
gun... Pentsamendu kritikoa
izan behar dugu», azpimarra-
tu du.

Izan ere, aipatu duenez,
«arazoa ez da norbanakoena,
guk sistemak kontsumiaraz-
ten diguna kontsumitzen du-

**Sindikatuak eta langileek azken urteetan egin
dituzten mobilizazioengatik gutxiengo
soldatak pixka bat igo dira, baina horiek ere ez
dira errespetatzen, Kareagak azaldu duenez**


**Jonen aburuz arazoa sistemikoa da: «Sistemak
kontsumiarazten diguna kontsumitzen dugu
guk; sistema hau da injustizia soziala sortu
eta ingurumenari kaltea egiten diona»**

Ingurugiroari kalte handia egiten dio ehungintza industriak, besteren
arteak ur gehiegi erabiliz eta kutsatuz. Industria horretan aritzen diren
langile asko emakumeak dira. Rana plazako istripuan hildakoak ere
emakumeak eta gaztetxoak izan ziren neurri handi batean.

Jon KAREAGA

gu. Sistema hau da injustizia
soziala sortu eta ingurumenari
kaltea egiten diona». Edono-
la ere, ez luke nahi hitzok
inork «aitzakia» gisa erabil-
tzea, ez dezala pentsatu «erru-
duna sistema denez berak ezin
duela ezer egin». «Ez, pertsona
txiki askok gauza handiak egin
ditzakete», errepikatu du. Bere
leloa da.

Esan eta egin: elkarriketa
egin eta gutxira Donostiako
arropa denda ezagun baten
aurrean elkarretaratzea egin
zuen Jonek. Urtarrilean Ban-
gladeshen egon nahiko luke,
egitasmoari heltzeko. Ikus-
gai dago noraino heltzen di-
ren, baina Rana plazaren
orubean eskulturaz gain ha-
zi bat ere ernaldu dela esan
dezakegu. Barruan, hiru eus-
kal gazteren ametsa dago,
loratzeko zain.





Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:

ASENSIO JAUNAREN ESTRATEGIA BERRIA MUGIMENDU EKOLOGISTAREN MOBILIZAZIOETAN OHARKABEAN PASATZEKO



SENTIMENDUEN ANALISIA

Herritar euskaldunek sare sozialetan ematen duten iritzia ezagutzeko sistema

 **JENDARTEA** / Amagoia Mujika Telleria

Erakunde eta enpresek dirutza bideratzen dute inkesten bidez herritarren iritzia ezagutzeko. Baina egunotan bada inkestak baino bide oparoagoa: sare sozialak. Horietan jendeak borondatez, noiznahi, nonahi eta doan ematen du bere iritzia. Iritzi horiek bildu, sailkatu eta horietatik ondorioak ateratzeko teknologia garatu dute.

Egunotan pertsonak datuak omen gara. Erakunde eta enpresek dirutza bideratzen dute inkesten bidez herritarren iritzia biltzeko eta interpretatzeko. Finean, datu horiek jaso eta erabiltze-

ko. Eta hara non pertsonak sare sozialetan nahi eran ematen duten iritzia, doan eta borondatez. UPV/EHUko IXA taldeak eta Elhuyarrek Twitter sare sozialean zabaltzen diren txioetatik iritziak erauzi eta sailkatzeko sistema bat garatu dute.

Beheko irudian, Iñaki San Vicente Roncal. UPV/EHUko IXA taldeak eta Elhuyarrek elkarlanean garatu duten teknologiaren egile nagusia da.
Jon URBE | FOKU

Izan ere, sare sozialak erabiltzaileek sortutako edukien iturri oparoa dira. Edozeri buruzko iritziak ematen ditu erabiltzaileak, nonahi eta noiznahi. Horrek, esanda bezala, berebiziko garrantzia du erakunde, enpresa, alderdi politiko eta beste hainbat eragilerentzat, haien jarduna herritarren iritzien eta gustuen gainean eusten baita nagusiki. «Eragile horiek betidanik izan dute herritarrek edota bezeroek duten iritzia jakiteko interesa. Orain arte inkestak erabili izan dira helburu horrekin, baina garestiak dira, jende gutxirengana iristen dira, beraiaz gerturatu behar zara haiengana... Interneten etorrerarekin, iritzi masa izugarria sortzen da une oro», nabar-



«Sare sozialetan sortzen den iritzi masa ezin da eskuz landu. Daukan bolumenagatik, beharrezkoa da automatikoki erauzi eta sailkatzea»

Sare sozialetako hizkuntza berezia da; ahozkotik gertukoa da, maiz ez ditu gramatika arauak betetzen eta bi hizkuntza nahastuta agertzea ohikoa da. Hori kontuan hartu dute

mendu du Iñaki San Vicente Roncalek. Bera da aipatu teknologiaren egile nagusia. «Iritzi masa hori ezin da eskuz landu. Daukan bolumenagatik, beharrezkoa da automatikoki erauzi eta sailkatzea. Beste hizkuntzetan badaude hori egiteko tresnak eta guk euskararentzat pareko baliabidea garatu nahi genuen».

Bereziki Twitter sare sozialean euskara hutsean idatzitako txioak, edo tartean euskara dutenak, izan dituzte langai. «Hasieran euskarazko txioekin hasi ginen, baina Euskal Herrian beste hizkuntzetan ere aritzen gara, edota hizkuntzak nahasten ditugu sare sozialetan... hartara erronka zabaldu egin genuen eta

eleaniztasunera jo», zehaztu du San Vicentek.

Izan ere, sare sozialetako hizkuntza berezia da; ahozkotik gertukoa da, maiz ez ditu gramatika arauak betetzen eta bi hizkuntza nahastuta agertzea ohikoa da: «*Kaixo. Acabo de hacer la azterketa de gizar-te. Fatal atera zait*» motako txioak, adibidez, ez dira arraroak. «Twitterren hizkera berezia da; ahozko hizkeratik hurbilago dagoen idatzizko forma dela esaten dugu guk. Letra larriak, enfasia eta oihuak adierazteko moduak, hizkuntzaren nahasketak... gure hizkuntzak hasiera batean hitzak identifikatzen zituen; ‘ondo’, ‘gaizki’, ‘triste’, ‘alai’... baina gero beste gauza horiek

Herritar euskaldunek sare sozialetan sortzen duten iritzi masa jaso, sailkatu eta hortik ondorioak erauzteko modu automatikoa garatu dute. GAUR8

lantzeko saiakera egin da; ironia, gramatikaltasun falta, enfasiak... horiek guztiak kontuan hartzen ditu guk garatu dugun teknologiak, sare sozialak ikertzeko behar-beharrezkoak direlako». Eta, noski, emotikonoak ere landu dituzte. «Guretzako oso pista onak dira iritzia eta sentimenduak neurtzeko orduan. Emotikonoak hizkuntza propioa dira gaur egun; batzuk oso argiak dira, besteak anbiguoagoak, baina asko laguntzen dute».

Beraz, hori guztia kontuan hartu behar izan dute sentimenduen analisia deritzon ikerketa-arloan metodo automatiko bat garatzeko orduan. Finean, sare sozialetan euskaraz sentimenduen analisia egiteko teknika bat garatu dute; gertaera baten inguruan pizten diren sentimendu positiboak eta negatiboak identifikatu eta sailkatzeko metodo automatiko bat.

FOKUA, GAI BATEN GAINEAN

«Herritar euskaldunek sare sozialetan ematen duten iritzia ezagutzeko sistema bat». Horrelaxe zehazten dute sortzaileek. Baina nola identifikatzen

dira sarean herritar euskaldunak? «Baditugu hori egiteko modu desberdinak. Muga geografikoak kontuan har ditzakegu, gaiaren arabera egin dezakegu... Gai batzuk oso mugatuak dira, oso lotuta daude Euskal Herriari, eta pentsatzekoa da horren inguruan iritzia ematen duena gertukoa dela. Hizkuntza, zalan-tzarik gabe, oso iragazki ona da. Iragazki desberdinak erabil daitezke eta hori automatizatu egin daiteke».

Iragazki horietatik abiatuta, garatu duten teknologiak gai zehatz baten inguruan jartzen du fokua eta horren bueltan sortzen diren iritzia bildu, sailkatu eta nolabait neurtu egiten ditu. «Gai bat definitzen dugu eta sareak entzuten hasten gara. Esaterako, Twitterren gai horren inguruan ematen dena jasotzen dugu. Behin hori jasotzean, informazio masa hori prozesatzen joaten gara. Positiboak edo negatiboak diren neurtzen dugu eta hortik datuen interpretazio bat egiten dugu, ondorio batzuk nabarmendu. Denboran zehar ematen diren iritzi alda-ketak, une jakin batean sor



daitezkeen ertzak –positiboak edo negatiboak–... Askotariko datuak eta ondorioak atera daitezke. Modu automatikoan neurtu dezakegu ekintza jakin batek, gertaera jakin batek, adierazpen batzuek... zer-nola-ko erantzuna izan duten».

«BEHAGUNEA», LEHEN FROGA

“Behagunea” izan zen garatu-tako sistemaren lehenengo aplikazioa. 2016. urteko Donostiako Europako Kultur Hiriburutzari lotuta, Twitterren esan zirenen sentimenduen analisia egin zuten. «Hiriburu-tzaren baitan egiten ziren ekimen eta proiektuan inguruko iritziak biltzeko behatoki digital bat izan zen».

Kasu horretan, erantzunen berehalakotasuna neurtu zuen teknologiak, gertaerak sarean publikatu eta lehen hamar minututan ematen ziren erreakzioak. «Finean, termometro bat jartzea bezalakoa izan zen. Gertaera jakin batzuen aurrean nabarmena zen sentimendu negatiboen gorakada. Eta hortik ondorio interesgarriak atera daitezke». “Behagunea” deiturikoaren helburua lehen kolpeko erreakzioak jasotzea

bazen ere, denbora horiek alda daitezke, ekimenaren ezaugarrien eta neurtu nahi denaren arabera.

DATUEN ANALISIRAKO TRESNA

UPV/EHUko IXA taldeak eta Elhuyarrek elkarlanean garatu duten teknologia esparru desberdinetan erabil daiteke. Tresnak “Talaia” izena du eta sareen monitorizaziorako tresna bat da. «Datuena analisi-rako tresna bat da. Iritziarena bide bat baino ez da, baina beste aukera asko izan ditzake; genero arrakalaren neurketa, hizkuntzaren erabilera, azterketa soziologikoak.... Aplikazio desberdin asko izan ditzake», zehaztu du Iñaki San Vicente Roncalek. Eta tresna garatzen jarraitzen dute. «Esaterako, testuetatik ez ezik, multimedia edukietatik ere gai gara sentimenduak erauzteko».

Sare sozialak gizartearen isla izan daitezke, nabardurak tar-teko. «Kontuan izan behar du-gu sare sozialetan iritzia ematen dutenak agian normalean sare sozialetatik kanpo ere iritzia ematen dutenak direla. Akaso ez da beti gertatzen, bai-na sare sozialetatik kanpo iri-

Emotikonoak, letra larriak, harridura ikurrak eta bestelako enfasia adierazteko moduak kontuan hartzen ditu teknologiak, sare sozialetan aldagai garrantzitsuak baitira. GAUR8

Datuena analisisirako tresna bat da. Iritziarena bide bat baino ez da, baina beste aukera asko izan ditzake; genero arrakalaren neurketa, hizkuntzaren erabilera, azterketa soziologikoak


«Gure teknologiantzat ez da garrantzitsua mezu bat ondo sailkatua dagoen edo ez, masa da garrantzitsua, joera bat ote dagoen ikustea. Joera orokorra da interesatzen zaiguna»

tzi sortzaileak direnak sare sozialetan ere hala izan daitezke. Gure ustez garbi dagoena da, hutsuneak hutsune, sare sozialek gizartearen irudi fidagarriagoa ematen dutela inkestek baino. Hori da garatu dugun teknologiatik oinarria. Hori da abiapuntua».

JOERA OROKORRA

Pertsonen datu izaera horrek, dena neurtua, interpretatua eta norbaiten interesen arabera erabilia izan daitekeenaren sentipenak egonezina ere sor dezake. «Teknologia ez da txarra, txarra izan daiteke ematen zaion erabilera. Guk erabiltzen ditugun datuak publikoak dira, norberak eta borondatez mundu guztiak ikusteko mo-

duan argitaratuak izan direnak. Ez gara inoren pribatutasunean edo intimitatean sartzen datu horiek lortzeko. Eta horrek bere balioa hartzen du masaren parte bihurtzen denean. Gure sistemak iritziak sailkatzen ditu errore batekin; une honetan arrakasta edo asmatze tasa %75ekoa da. Baina gure teknologiantzat ez da garrantzitsua mezu bat ondo sailkatua dagoen edo ez, masa da garrantzitsua, joera bat ote dagoen ikustea. Guri ez zaizkigu banakako mezuak interesa-tzen, orokorrean gertatzen ari dena baizik, joera orokorra. Bestelako eztabaida da gaur egun nola erabiltzen ditugun sare sozialak, arduratsuak ote garen».





Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria


DNAk eta urpekariak

Espainiar hauteskundeen errepikapena dela eta, bi ikuspuntu pertsonal partekatu nahi nituzke, euskal gizon abertzale ezkertiar esanguratsuen ahotik azken asteotan entzun diren iritzien harira. Espainiak ez du DNA autoritariorik. Zalantza izpirik edukitzekotan, begira diezaiogun gure bu-ruari eta Hego Euskal Herriko biztanleonek jatorri diren espainiar familiei. Espainiak oligarkia autoritario bat du herrialdeko sistema ekonomikoaren erpinean. Familia oligarkiko horiek dira disidentzia modu oro onartzeko ezintasun patologiko bat dutenak, XVIII. mendearen bukaeratik herriarrek botere egituretan esku hartzea exijitu dutenetik. Begira erregeen ateraldiak hitza hartzen duten bakoitzean; berdin benetakoa, gure Juankar herdoildua, bai eta Gasteizko matrikula duen Felipe delako pijo hori ere. Beren aurreko zuzenek ere disidentziaren presentzia publikoa moztu zuten, parlamentuak ezabatuz beharrezko ikusi zutenean: Alfonso XIII.ak Primo de Rivera jeneralaren eskutik 1923an eta gero 1936an matxinada faxista-monarkikoa sostengatuz. Baita Alfonso XII.ak ere, 1874ko Pavia jeneralaren estatu kolpea aprobetxatuta lehen errepublika bertan behera utzi eta monarkia berrezarri zutenean.

Espainian herritarren boteretzea bilatzen zuten sistema politikoek ez zuten porrot egin espainiarrek DNA autoritario bat dutelako, oligarkiak indarrez erorarazi zituelako baizik. Oraindik azken erorketa horren aztarnak ditugu: errepublika katalanaren aldeko militanteak atxilotzen dituztenean terroristak direla esanez, edo Iruñean Francoren aurka armetan altxatu zirenak omentzea debekatzen dutenean. Bide batez,

Francoren gorpuzkia, nire uste apalean, hobe Kanarietara itzularazten badugu eta han itsasora bota inork ez topatzeko moduan, gogorarazteko ez zuela inoiz irla haietatik atera behar bere tropekin. Ez dakit kanariarrei grazia handiegirik egingo dien... Espainian ez dago demokraziarik, baina ez asunto kultural-genetiko batengatik. Independentistok hori oso argi eduki behar dugu, proposamen politiko garbizaleak aireratu aurretik.

Bestalde, ez dut uste Iñigo Errejon alderdi sozialistaren urpekaria denik. Mezu espainiar abertzaledun alderdi-koalizio antioligarkiko bat sortu du, nire ustez oso interesgarria. Abertzaletasuna, espainiarra, bere zentzurik jatorrenean transmititzen duela deritzot: aberria, herritarren gehiengoarena da eta guztion esku hartze politikoa bermatzen du, ala ez da aberrik. Jendeari esatea itsututa dagoela eta egiatan, benetako ezkerak bakarrik ordezkatzeko duela, deserturako eta autokonplazentziarako bidea besterik ez da. Más País delakoak kultura politiko interesgarria sor dezake, eta agian urpekari lana egingo duena, baina Espainian erro herritardun sistema politiko berri bati begira. Monarkiaren hurrengo erorketatik hurbilago jartzen gaituen mugimendu azkarra dela iruditzen zait, nahiz eta ziurrenik oker egongo naizen. Historialari gisa, nire fuertea ez da etorkizun politikoa asmatzea. Kontuak kontu, begitantzen zait independentistok hurbiletik jarraitu beharreko fenomeno dela, erreformista, saldu edo oportunistatzat jo beharrean. Eta hobe ez gaitzala despistatuta harrapa, behin eta berriro euskal kristau-demokraziari independentista eta ezkertiar bihur dadin erregutzeko mania horretan. •



Ilustrazioa: Jonbi EGURZEGI

{ koaderno } Joana Garmendia

Zipaioak eta marikitak

G izarte bati buruz jakin daiteke zerbait, iraintzeko zein hizkuntza-baliabide sortu dituen ikusita. Iraindu, jakina, edonor eta edozein arrazorengatik egin daiteke, edozein hizkuntzatan; baina hizkuntza batzuetan propio horretarako sortutako hitzak barneratu dira, eta horrek, bai, horrek erakusten du zerbait.

Ingeleseztan sistema xehe-xehea daukate, esaterako, arrazei buruz hitz egiteko. Hobeto esanda: arraza batekoa izateagatik inor gutxiesteko. Arraza bakoitzarentzat, badaukate izen neutro bat, eta, gero, neutrotik oso gutxi duten beste horrenbeste izen dituzte arraza berarentzat. Adibidez: norbait beltza dela esateko era neutroa izango da *black (person)* edo, agian, *afroamerican* dela esatea. Baina, horietaz gain, badituzte beste izen batzuk beltzei gutxiespenez erreferentzia egiteko. Gogorrena, seguru asko, *nigger*: gaur egun erabat baztergarritzat joa, eta zuriak ia ahoz gora esatera ere ausartzen ez direna (*the n-word* esaten diote, osorik ez aipatzearen, pentsa).

Berdin dituzte beste arraza, erlijio edo etnia askokoen hitz-bikoteak: *chinese-chink* txinatarrentzat, *german-boche* alemanentzat, *jew-kike* juduentzat, *hispanic-spic* hispanoentzat, *italian-wop* italiarrentzat, eta horrela zerrenda amaigabea. Lehenengoa, neutroa; bigarrenari, gutxiespenekoa den izenari, *slur* esaten zaio ingelesez.

Esango nuke arrotz samarra egiten zaigula hori guri. Guk ez daukagu beltzei, txinatarrei edo italiarrei deituko gutxiespeneko izenik. Baina ez zaigu hain gai arrotza irudituko, seguru asko, arraza-kontuak ahaztu eta sexu-orientazioari buruzkoak gogora ekartzen baditugu.

Gaztelaniaz sorta ederra daukate horretarako. Inork Mikelen orientazioari buruz galdetuz gero, pentsa zein desberdina den hura homosexuala edo gaya dela erantzutea, edo esatea marikoia dela. Bi erataraz erantzungo genioke galderari; bi erataraz adierazi dugu Mikel mutila dela eta gogoko dituela mutilak. Baina, bigarrenarekin, zerbait gehiago ere esan ote dugun. Ez da erraza esaten zer den “zerbait gehiago” hori, ezta Mikeli buruzko zerbait den edo, oro har, mutilak gustuko dituzten mutilei buruzkoa. Baina zerbait gehiago bada, hori seguru.

DENA EZ DA ARRAZA ETA SEXU

Euskaraz horrelakorik ez daukagula esateko prest nengoen. Gaztelaniarenak erruz erabiliko ditugu, jakina; edo beste era batera irainduko dugu norbait den arrazakoa delako edo duen erlijioa duelako. Baina hori berariaz egiteko hitzik, apenas bururatzen zaidan euskaraz. Baina dena ez da arraza eta sexu.

Galde iezadazu Mikelek zertan egiten duen lan: erantzungo dizut ertzaia dela, edo esango dizut zipaioa dela. Erantzun, bi moduetara erantzun dizut: orain badakizu non, nola eta zeinentzat egiten duen lan Mikelek. Baina bada alderik. Eta bada alderik esatean Mikel eskuindarra dela, edo Mikel fatxa dela. Eta alderik ere bada Mikel guardia zibila edo pikoletoa dela esatean; polizia edo madero dela erantzutean. Euskaraz beste kontu batzuetarako sortu ditugu, antza denez, gutxiespeneko deiturak.

Hobeto pentsatuta, ea nola azaltzen diodan nire bizilagun maketo-koreanoari euskaraz ez daukagula jatorri-kontuetarako izen iraingarrik. •

Ingeleseztan sistema xehe-xehea daukate, esaterako, arrazei buruz hitz egiteko. Hobeto esanda: arraza batekoa izateagatik inor gutxiesteko. Arraza bakoitzarentzat, badaukate izen neutro bat, eta, gero, neutrotik oso gutxi duten beste horrenbeste izen dituzte



Gorka RUBIO | FOKU

Hizkuntza Eskubideen Behatokiko zuzendari berria da Agurne Gaubeka Erauskin (Bermeo, 1984). Lan-zientzietan eta Lan-harremanetan ditu ikasketak. Eskubideen esparruan aritu izan da orain arte, bereziki ikuspegi feministan egin du bidea eta sindikalismoan aritutakoa da, bai Katalunian eta bai Euskal Herrian ere. Eta horretan segitzeko asmoa dauka, eskubideen bidea urratzen eta hizkuntza eskubideak lehen lerrora ekartzen, gutxienez,

gainontzeko eskubideen pare-ra. Nafarroako Auzitegia Nagusiak euskara meritu gisa hartzea ez dela derrigorrezkoa erabaki du asteon. Erabakia jakin berritan eseri da GAUR8 Gaubekarekin hitz egitera, hizkuntza eskubideak lehen lerrora ekartzeko premia larria mahai gainean sumatzen dela.

Galdera derrigorrezkoa. Nola baloratzen duzu Nafarroako Auzitegi Nagusiak hartutako erabakia?

Albiste txarra da, baina espero genuen. Eta espero genuen, askotan esan dugunez, Foru Araua bera delako errotik al-

datu behar dena. Azkenean, Foru Arauak dituen zirrikitu guztiak baliatu dituzte. Foru Arauak nafarrak diskriminatu egiten ditu eta bizi diren tokiaren arabera desberdin tratatu; ez dauka ez kohesiorik, ez berdintasunik eta uste dugu justiziarik ere ez duela, nafarren arteko berdintasuna ez duelako bermatzen. Epaia zirrikitu horiek guztiak baliatu ditu eta gure balorazioa garbia da: errotik aldatu behar da Euskararen Legea. Bide horretan, Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu helegitea aurkez dezala eta herritar guztien eskubideak defenda ditzala.

Euskara benetan babestuko duten lege eraginkorrak behar dira beraz.

Hori da, eta batez ere herritarren eskubideetan oinarritutakoak. Herritarren oinarritzko giza eskubideen barnean daude, batetik, administrazioari euskaraz zuzendu ahal izateko eskubidea, eta, bestetik, hizkuntzarengatik diskriminatuak ez izateko eskubidea. Beraz, lege horiek oinarritzko giza eskubideen kontrakoak dira.

Lehen pausoa hizkuntza eskubideak beste giza eskubideen parean ikustea litzateke akaso. Eta horretan gure he-

rriaren historiak pisu handia dauka.

Bai. Herri honetan borroka baten barruan sartu izan da euskara. Eta horrekin ez dut esan nahi euskarak ez duenik politikaren barruan egon behar, hizkuntzek eta euskarak politikaren barruan egon behar dute. Baina uste dut ikuspegi okerra eman izan zaiola, interesatua. Euskara politikaren alorrera ekarri behar dugu oinarritzko eskubide bat bezala; ez batzuen edo besteen eskubide bezala. Euskara denon eskubidea da, baita euskaraz hitz egiten ez dutenena ere. Era berean, erakundeen aldetik ez zaio

«Eskubideen borrokan euskarari merezi duen tokia ematea da gure erronka»

eskubidearen trataera eman eta herritarren kontzientzia-zioan ere egiteko asko daukagu. Adibidez, feminismoaren baitan, emakumeen eskubideen baitan, berdintasunaren aldeko zenbait neurri hartzea erabat ulertzen dugu eta barneratuta daukagu. Baina euskararekin ez da gauza bera gertatzen. Guk geronek, euskal hiztunek, ez ditugu maila berean ikusten gure hizkuntza eskubideak.

Hizkuntza eskubideen alorrean ere beharrezkoa da ahal-duntze ariketa bat.

Zalantzarik gabe. Eta herritarren kontzientzia-zio horretan Behatokiak asko du egiteko. Euskaldunaren zenbait konplexu gainditu behar dira eta gure hizkuntzari prestigioa eman behar zaio.

Egunero gertatzen dira hizkuntza eskubideen urraketak eta maiz ez gara eskubide horien jakitun ere.

Adibidez, edozein komertziora joan eta arreta euskaraz izateko eskubidea duzu. EAEn merkataritza guneko handiak behar-tuta daude zerbitzua bezeroak aukeratzen duen hizkuntzan ematera. Beraz, urraketak gertatzen dira etengabe. Baina euskaldunak askotan ez gara urraketa horien jabe, hizkuntza aldatzen dugu eta aurrera.

Urraketen kasuan, haserre-tzeaz gain, zer egin dezakegu? Behatokia erreminta egokia dugu horretarako. Euskararen Telefonoa eta Akuilaria aplikazioak herritarren eskura ditugu. Guk bitartekari eta akuilari lana egiten dugu herritarren eta urraketa egin duen erakundearen edo enpresaren artean. Legedia kontuan hartzen dugu, baina ez hori bakarrik,

giza eskubide horren urraketa ere kontuan hartzen dugu, legediak kasu askotan –Nafarroako adibidea hor dago– ez digulako bermatzen eskubidea bera errespetatzea.

Urraketa horiek modu anonimoan kudeatzen ditugu eta enpresa edo erakunde horiek neurriak har ditzaten saiatzen gara. Batzuetan erantzunak jasotzen ditugu, beste batzuetan ez digute erantzun ere egiten, eta, beste batzuetan, erantzun txarrak jasotzen ditugu. Baina egia da egunero gainean egon behar dugula. Askotan plan potoloak egiten dituzte, euskara planak eta horrelakoak, baina, ostean, egunerokotasunean, ez dago inor neurri horiek betetzen diren edo ez zaintzeko.

Garrantzitsua al da urraketak salatzea?

Baietz uste dut. Askotan erakundeek norbanakoen eskuetan uzten dute euskararen osasunaren zama; zure esku dago euskara ikastea, zure esku dago erabiltzea... baina behar-beharrezkoa da erakundeak inplikatzeko. Horregatik garrantzitsua da erakundeei urraketan inguruko mezua helaraztea: hau gertatzen ari da eta hau konpontzeko giltza zuek duzue, erakundeek. Azken finean, nik euskaraz bizitzeko ahalegina egin arren, denda batera joatean, enpresa batera gerturatzean edo udal-etxera izapide bat egitera joatean arreta ematen didatenek ez badakite euskaraz, zer gehiago egin dezaket nik?

Batzuetan badirudi euskara ez dela oso serio hartzen. Euskararen alde herritar eta erakunde asko daude, baina hor-tik eskubide izaera aitortzera koska bat dago.

Azkenaldian sare sozialei begira gauza batekin konturatu naiz; badirudi egun herritar-rak lehentasunak markatzen ari direla. Zein da zure lehentasuna? Feminismoa? Ekologismoa? Sexu aniztasuna? Iru-ditzen zait euskal gizartean erronka garrantzitsu bat daukagula lehentasunak bateratzen, denak mahaiaren gainean eta maila berean jartzen. Zer-nolako herria eraiki nahi dugu? Horri erantzunez, aliantza oso indartsuak egiteko aukera ikusten dut.

Feminismoaren eta sindikal-gintzaren mundutik zatoz. Parekotasunak eta desberdintasunak izango dira, ezta?

Parekotasun asko daude. Eta desberdintasun handiena garbi daukat: ez daude momentu berdinean. Hizkuntza eskubideak defendatzea, emakume baten eskubideak defendatzea edo langile batenak, oso oinarritzeko ikusten ditut. Batzuek hizkuntza eskubideen kontra erabiltzen dituzten argudioak, adibidez, oso mingarriak eta defendatzeko zailak iruditzen zaizkit. Hizkuntza eskubideak hitzun kopuruaren arabera finkatzea astakeria hutsa da. Pentsa berdintasun politikak horren arabera aplikatzen ditugula; zonalde batean bizi diren emakume kopuruaren arabera feminismoaren kasuan. Edo zonalde batean bizi den homosexual kopuruaren arabera. Hori ez gendake ulertuko. Aldiz, hizkuntza eskubideen kasuan ulertezinak eta astakeriak diren gauza asko samurrago bezala barneratzen ditugu.

Egunotan, gero eta hizkuntza gehiago jakitea meritutzat hartzen da. Aldiz, batzuen begietara euskara jakitea ez da

AGURNE GAUBEKA ERAUSKIN

BEHATOKIKO ZUZENDARIA

Euskal hiztunek etengabe sufritzen

dituzte beren hizkuntza eskubideen

urraketak. Batzuetan, aste honetan

bezala, lehen lerroko albiste dira.

Gehienetan, itzalean geratzen diren

trantze txarrak. Hizkuntza eskubideak

beste giza eskubideen parera ekarri nahi

ditu Behatokiko zuzendari berriak.

Amagoia Mujika Telleria

«Gustatuko
litzaidake Euskal
Herriko
gainontzeko eragile
sozialekin
eskubideen
inguruko
hausnarketa bat
bultzatzea eta
aliantzak sortzea.
Norbere esparrutik,
beste eskubideen
inguruko
kontzientziazioa
lantzea»



Gorka RUBIO | FOKU

**meritua, gehitu beharrean
kendu egiten du.**

Bai, eta hori landu egin behar da. Gauza bitxiak gertatzen dira. Adibidez, Tuterako lan deialdi batean alemana jakitea bost punturekin saritzen zen eta euskara jakitea ez zen merituetan kontatzen. Horrelako gauzek euskararen kontra daudenen argumentuak ere hankaz gora jartzen dituzte. Nork erabiltzen du Tuteran alemana? Zenbat biztanlek?

**Kargua hartu berritan, zein
errornka begitantzen dituzu?**

Gustatuko litzaidake Euskal Herriko gainontzeko eragile sozialekin eskubideen inguruko hausnarketa bat bultzatzea eta aliantzak sortzea. Norbere esparrutik, beste eskubideen

inguruko kontzientziazioa lantzea gustatuko litzaidake. Eskubideen borroka horretan euskarari merezi duen tokia ematea. Euskara bere tokira eraman nahi dut, duela gutxi Jon Maiak esan duen moduan.

**Eta herritarrak zer egin deza-
ke?**

Mobilizazioa eta mobilizazioa, alderdi politikoei legeak aldatzeko eskatzeko. Eta ez bakarrik Nafarroaren kasuan, EAE-ren kasuan ere badago zer eginik. Adibidez, oraintsu kaleratu den Kontsumitzaileen Legearen arabera enpresek ez dute inongo hizkuntza betebeharririk. Borondate onaren esparrutik harago joan behar dugu, eskubideen esparrura pasatu behar dugu.

URRAKETAK, ETENGABE ETA DOAN

Hizkuntza eskubideen egoera jasotzen duen Behatokiaren 2018. urteko txostena argigarria da oso. Ondorioa garbia da: «Idatziz zein ahoz, oraindik ere euskaraz jarduteko ezintasuna mota guztietako zerbitzu eta jardueretan islatzen da: osasun zerbitzuetan, segurtasun arloan, justiziaren eremuan, administrazio guztien jardura orokorretan, hezkuntzan, aisialdian, komunikabideetan, baita kontsumo harremanetan ere. Balantza ez dago orekatua eta nabarmena da frantsesaren eta gaztelaniaren nagusitasuna».


Euskal hizkuntza-komunitatea administrazio desberdinetan kokatuta dago eta ondorioz hainbat ordenamendu juridikoren mende dago. Gauza batean, baina, parekoak dira administrazio eta ordenamendu guztiak: «lurralde osoko euskal hiztunek ikusi dute galarazita euskara askatasunean erabiltzea».

Estatu espainoleko administrazioaren joerak ere ez dio mesederik egin euskarari, indarrean

dagoen ofizialtasun bikoitza ez baitu errespetatzen. «Espainiako Konstituzioak ezartzen duen gaztelania ezagutzeko derrigortasuna herritarren eskubideen gainetik jartzen dute, eta, beraz, euskalduna babesik gabe geratzen da hizkuntza eskubideak errespetatzeko eskatzen duenean».

Estatu frantseseko administrazioaren joera ere ez da batere ona. «Larriak dira hezkuntza sistemari jarri dizkion trabak. 2018. urtean Hezkuntzan bereziki euskal hiztunen eskubideek urraketa nabarmenak izan dituzte; ikasleek brebeta eta baxoa euskaraz pasatzeko oztopoak, ikastolen lanpostuetan murrizketak edota hezkuntza publikoko sisteman euskararen irakaskuntzaren aukerak kolokan jartzea».

Ondorioa, argigarria bezain mingarria: «euskal hiztunei etengabe eta doan urratzen zaizkie hizkuntza eskubideak, horrek ez baitu ondoriorik izaten».



GAUR8 *ireki gure leihoa*

SARE@N

naiz+



> Nafar Erresumako Krono Eskaladen finala, Ibardinen

Euskal presoen alde eta bake prozesua aitzinatzeke ekime-naren antolatzaileek esan du-tenez, orotara Euskal Herriko zazpi probintzietako eta kan-poko 70 txirrindularik parte hartzea lortu dute, «familia txiki bat» osatuta; adin guztie-takoak, hasiberriak eta ospe handikoak, hala nola Didier Zago eta Adele Kerbaol kirolari esanguratsuak. Finala Ibardi-nen izanen da, urriaren 19an.



Txapelketa orokorrari dago-kionez, Larraineko igoeraren ondoren, Adele Kerbaol dago lehen postuan, 40 punturekin, eta Didier Zago eta Jean Mar-kek 30 puntu lortu dituzte. Igor Astarloza txirrindulari profesional ohiak ere parte hartuko duen finalera joatera deitzearekin batera, sorpresak izanen direla iragarri dute. Izan ere, larunbat hori «egun handia» izatea espero dute.

> Arruazutik Izabaraino, artzaintzaren balioa nabarmenduz

Urriko azken asteburuan lotu-ko ditu Aritz Ganboa Arruazu-ko artzainak lasterka bere he-rria eta Izaba, artzaintza eta horren inguruko ondarearen balioa nabarmentzeko. “Bide-ak dokumentala” proiektuak emango du erronkaren eta on-dare horren berri. Ganboak Idiazabal gazta bat eramango du gainean, helmugan Erronkariko gazta batekin trukatzeko. Bi herrien arteko lo-turaren bidez, landa eremuko bizimoduaren eta hiriko bizi-



moduaren arteko zubiak eraiki nahi dituzte, horretarako bi gazta, bi jatorri izen, bizimodu bat eta ogibide bat abiapuntu hartuta. Herri hauetatik igaroko da lasterka Aritz Ganboa Izabara iristeko: Arruazu, Madotz, Gol-daratz, Latasa, Zarrantz, Mus-kitz, Aroztegi, Gaskue, Latasa, Olague, Leazkue, Egozkue, Iragi, Usetxi, Saigots, Lintzoain, Bizka-rrera-Gerendiain, Aurizperri, Auritz, Orbaizetako Ola eta Uz-tarroztik.



> Iruzurra eta Zarautzen, gainera, lelokeria

Azken bost urteetan iruzur be-raren gaineke albisteak agertu izan dira tarteka Estatu espai-nolean. Guardia Zibilaren aldiz-karietan publizitatea kontrata-tzea eskaintzen diete enpresei eta autonomoei, existitzen ez diren edo ofizialak ez diren al-dizkarietan, alegia. Orain aspaldi ez dela Zarau-tzen jaso dute “eskaintza”, iru-



zurgileak galdu samar dabil-tzan seinale. Badaezpada, sare sozialen bidez ohartarazi dute iruzur ahaleginaz: «Guardia Zi-bilaren izenean deiak jasotzen ari dira enpresa eta autonom-ak [...] Beraz: ez ordaindu, ez beldurtu». Beldurtu? Guardia Zibilaren baitan, agian, harritu egin dira mezuaren amaiera-gatik. Edo, beharbada, ez.

Gugan, betiko

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Bihar beteko dituk zortzi urte gure artetik joan hintzela. Bi lau urteko, denbora legealdika gehiegitan kontatzen dugun herri honetan. Egia esan, hire kasuan, legealdiek ere baziaten zer esana, hirutan egon hintzen-eta herriko alkate karguan. Eta joan hintzen urteko maiatzean, ikusi ahal izan huen hire joera politikokoek nola berreskuratu zuten Udaleko aginte makila. Hor segitu diagu eta segitzen diate oraindik ere, hik urratutako bidean, boto emaileez gain, herritar guztientzako alkate eta hautetsi izateko ahaleginean.

Hutsune handia utzi huen gure artean. Hutsune fisikoa, gure etxean ohi-koa denez, gizon handia hintzelako. Baina baita bestelako hutsunea ere. Alferrik hizketan aritzen diren horietakoa ez hintzen arren, isilik eta disimuluan pasatzea gustuko huen arren, hengoen tokian hire presentzia nabarmena zelako.

Gure bigarren aita izan hintzen, urteetan hirekin bizitzeko ohorea izan genuen ilobentzat. Eta hi agurtzerakoan herrian bildu zen jendetza ikusita, seme, anaia eta osaba izateaz gain, jende

askoren laguna hintzela frogatu ahal izan genian. Etxeko mahai bueltan utzitako hutsunea handia delako, baina hire falta sumatzen dutelako elkarteko sukaldean ere. Seguru asko, hik prestatutako saltsako bakailaoarena.

Askok ikasi genian higandik. Eta ikasi genuenarekin egiteko gai izan garena hiri erakusteko aukerarik ez izateak ematen zidak pena. Baita familian kontatu nahi ditudan nobedadeak entzuteko ez haizela egongo sinetsi beharrak ere. Gugan hago, hala ere, eta hala mantenduko haugu. Beti arte, Joxe! •

Kilometroak

Joxean Agirre

Ikastolak izan dira joan den mendeko euskal inbenturik handienetako bat eta ez bakarrik eskolaren arloan, gelak garaiko pedagogia berriei ireki, diziplinaren kontzeptua hankaz gora jarri eta frankismo garaiko isiltasuna eta tristurak uxatuz umeak kantuan jarri zituztelako eta abar eta abar, baizik beste hainbat arrazoigatik ere. Horien artean nagusia da ia-ia laborategian eraikitako euskara batuarentzat lehen proba eremua izan zirela eta, beste arrazoi bat aipatzearen, bertso eskolen lehen altsumak ere enbor horretatik atera ziren, eta eskola horiek gabe zaila da ulertzen gerora bertsolaritza izan duen garapena.

Baina ez da hori bakarrik izan: gizarte arazoei erantzuteko modu parte-hartzaile bat ekarri zuen ikastolen mugimenduak, lan boluntarioa eta profesionala uztartzeko modu bat eta, gaur erakunde

sendoa bada ere, jatorriz gizarte mugimendu ere badenez, irakaskuntza ulertzeko ekarpen teoriko batzuk ere eskaini dizkio sektoreari, publikotasunari buruzko ikuspegi berriago bat esate baterako. Arlo festiboan ere, zer izan da berri-tzaileagorik Kilometroen asmakizuna baino? Izan ere, mundu guztiak erabili du formula hori gero euskara, kultura, musika eta kirola elkartzen dituzten festak antolatzeko.

Bihar egingo dira Zarautzen ziklo zaharreko azken Kilometroak eta izan duten arrakastaren lekuko da boluntarioek egunerako izena emateko webgunea. Aurreko Kilometroetan festa bukatu eta hesiak erretiratzen egin nuen lan pixka bat eta handik hamabost egunera afari batean elkartzekotan gelditu ginen. Afari hori beste pare bat edo hiru aldiz errepikatu genuen.

Aurten ere asmo horrekin ireki nuen webgunea. Ez zait gaizki etorriko, nioen nirekiko, beti jende berarekin ibili gabe ezagutzen ez dudan jendearekin afari batzuk egitea. Urtean zehar beharbada langile faltan ibiliko ziren, baina ez zen posible biharkoan lanerako lekurik aurkitzea, lantalde guztiak “osatuta” zeudelako.

Datorren urtean, gogoeta prozesu luze baten ondoren, antolatuko dira ziklo berriko lehen Kilometroak. Seguru nago asmatuko dutela, baina beldur naiz ez ote duten ikusgarritasunean galduko, hain baikaude emanak, gure txikitasuna estaltzeko-edo, BECak eta estadioak betetzera, zeinek ibilbide luzeagoa egin, kontzertu erraldoiagoa antolatu lehiatzera, herri honetan ez baita ezer ganorazkorik egiten lehiarik eta nor gehiagorik ezean. Ea hurrengoan lanerako lekuren bat aurkitzen dudan ondoren afari batzuk egiteko. •



Ane Gebara, Gasteizko Judimendi auzoan. Juanan RUIZ | FOKU

infraganti ANE GEBARA

Irakasle ikasketen amaierako lanaren bidez hurbildu zen gasteiztar hau ipuinen mundura, eta istorioak kontatzeko jardun «ederra» lan bihurtu zitzaion. Besteak beste, Virginia Imazekin, Pello Añorgarekin edo Itziar Rekalderekin ikasi du. Bere istorioak arte bisualetara eraman ditu eta, azken aldion, baita antzerki mundura ere.

Egunkari honetako Kultura atalak “4pArTE” proiektuaren berri eman zuen joan den astelehenean, Ane Gebara ipuin kontalariak ikusgai jarri duen arte bisualen esparruko lehen lana, hain zuzen. Horretaz, aurrekoez eta gerokoez

hitz egin dugu berarekin, te baten bueltan harrapatu dugun honetan. Atearen sinbologiarekin jokatu «edo jolastu» nahi zuela dio Anek eta, Gasteizko ARTgia aretoak eman zion beka baliatuta, ikusgai jarri ditu lau ate, lau emakumeren bizitzetarako sarrrerak. Behin sartuta, entzuten diren istorio gehienak sentsa-

zio txikietatik tiraka sortu direla dio, «zaila egiten baitzaigu egoera sinple eta aldi berean hain garrantzitsu horietan sartzeari». Horregatik, «aldare batean» jarri nahi zituen egoera sinple horiek, entzuleak momentu horietara sartzeko. Istorio asmatuak dira, baina eguneroko sentsazio errealetatik sortuak.

Badu loturarik, horrenbestez, azken urteetan jardun nagusia izan duenarekin, ipuin-kontaketarekin, hain zuzen. Horixe du neurri handian lanbide; horixe bere proiektuen oinarri eta jarduerarik gustukoena, bere ustez narrazioa gauzarik sinple, borobil eta egiazkoena baita.

Irakaslea da Ane, baina eskolaz kanpoko jarduerak baino ez ditu eman, ipuinak kontatzeak eta horretarako bere burua prestatzeak eraman baitio denbora gehiena. Aurten, berriz, zerbait finkoago egiten hasi da, ipuin-kontalari lanbidearekin batera, psikomotrizista gisa. «Psikomotrizitatea beste mundu potente bat da», dio halako gogobetetasuna erakutsiz, «mundua gorputzaren mugimendutik ulertzea beste ate bat da». Aneren ogibide bion arteko lotura ere nabarmena da: «ipuinean etengabe mugitzen dugu gorputza, burua... eta psikomotrizitatean gure gorputzaren mugimenduen askatasun horretatik sortzen dugu ideia, gure izaera».

IPUIN TRADIZIONALAK

Haur Hezkuntza ikasi zuen, eta karrera amaierako lana ipuingintzaz egitea bururatu zitzaion, ipuin tradizionalaren aldeko lan bat. Beste batzuek haren aurka egin zutela dio, batez ere haien alderdi sexista salatuz. Berak uste du ipuin tradizionalak indar eta sakontasun handiak dituztela.

Ikasketak amaituta, Mexikon eman zuen denboraldi luzean txotxongiloen mundua ezagutu zuen, eta, Gasteizera itzuli zenean, ipuinak kontatzen hasi zen, lehenengo ilobekin, eta halako batean Mara-Mara liburu dendan. Lotsatu samar. Edonola ere, ez zuen oso txarto egingo, luze gabe deitu baitzioten bere istorioekin haurren begiak borobiltzeko.

Ipuin-kontalari handiak eza gutu zituen ondoren, hala nola Pello Añorga edo Virginia Imaz. Donostiarrarekin ikastaro bat egin ondoren, argiago sumatu zuen bere bidea, eta bere burua prestatzen jarraitu zuen, ipuinen lanketa handiagoa egiten, publikoarengana iristeko estrategiak lantzen, beste askoren kontaketak entzuten, oso garrantzitsua iruditzen baitzaio entzutea: «gaur egun gero eta gehiago kostatzen da». Bere lanaz gero eta kontzienteago egin eta ipuinak bere modura kontatzen hasi zen, genero ikuspegia islatzen ere saiatuz.

Hitz soila nahiago badu ere, batzuetan album ilustratuak erabiltzen ditu, gaur egungo bisualtasunaren indarraren jakitun. Irudi bakar batekin istorio oso bat konta dezake; edonola ere, istorio baten xehetasun batetik beste istorio bat atera daitekeela dio.

IPUIN-KONTAKETA, MAGIA

Umeak inguruan adi-adi ikusten dituenean, gozatu egiten du, «ohian batean edo ipuinaren espazio horretan erabat sartuta, gertaeren arabera aurrepigiara aldatzen, batzuek belarriak edo begiak estaltzen, gertaera horiek benetan bizitzen, ipuineko beldurra sentitzen dutelako... hori da ipuinaren magia», azaldu du grinatsu. «Hori ikusten duzunean, lana ondo eginda dago. Eta oso bisuala da,



Ane Gebara, Gasteizko ARTgia aretoan ikusgai duen «4pArTE» erakusketako ateen artean. Juanan RUIZ | FOKU

zeren begiradak konektatzen direnean, ipuineko jolas horretan gaudela nabaritzen duzu». Bere ustez, ipuina ikasketa handia da: «Ez gaude basoan, baina beldur hori benetakoa da. Gainera, gainditu egingo dugu, eta horrelako egoera batetik irabazle ateratzea ikasketa polita da. Askotan oso zaila da gaizto bati, alegia arrisku bati, aurre egitea, baina ipuin baten bitartez aurre egin eta irabazi baduzu, hurrengoan beste gaizto bati ziurtasun handiagoarekin aurre egingo diozu. Ezin badugu imajinatu ere egin gaiztoei nola aurre egin... Bada, ipuinak aukera hori ematen digu». Gutxienez fikzioan sentsazio horiek bizi izanda, «benetan bizi izaten baitira», norbanakoa pixka bat aldatzen dela uste du: «Beti esaten dut

mundua aldatzeko kontatzen direla ipuinak».

Hilean behingo saioak ohiko kontu bihurtu zitzaizkion pixkanaka Aneri, lan profesionale-rako aukera gehiago eman arte. Orain artean behin edo bitan egiten ditu saioak, normalean ikastetxeetan edo liburategietan, auzoetako jaietan... Aisialdian, edonola ere.

Orain kontatzen dituen ipuin batzuk duela hiru urte hasi zen kontatzen, lantzea asko kostatzen zaio eta. Hala ere, gero eta baliabide gehiago ditu, gero eta errazta-

Ipuina ikasketa handia da: «Ez gaude basoan, baina beldur hori benetakoa da. Gainera, gainditu egingo dugu, eta horrelako egoera batetik irabazle ateratzea ikasketa polita da»

«Niretzat bizitza oso jostagarria da, eta oso gozagarria. Jolas egiten dut eta gero gauzak aurkeztu egin behar ditut. Azken aldi honetan antzerkiarekin jolasten hasi naiz»

sun eta trebetasun handiagoak, eta gero eta hobeto ezagutzen du publikoa. Kontaketa sinplea du gustuko eta sinpletasun hori jendearentzat ederra izatea:

«Hitz egitea hain gauza primario eta oinarritzkoa denez, modu natural, polit eta sinplean egitea opari xume bat bezalakoa da», azaldu du.

IDEIAK ERRUZ

Iazko apirilean, Gazte Sortzaileak bekari esker, “Harriek kontatu didatena” ikuskizuna estreinatu zuen Gasteizko Oihaneder Euskaren Etxean, Itziar Rekalderen

laguntzarekin. Helduentzako ikuskizuna da, Arabako hainbat istorio zaharretan oinarritua. Aurrez sentitzen zituen lotsa eta helduen epaiaren beldurra gainditu eta arrakasta handia lortu zuen. Gogoan dituzte Rekalderen hitzak: «Igerilekura ez, amildegira salto egin behar dudala esan zidan».

Ez du ideiarik falta izaten, eta neurri batean beken bitartez ematen die bide bere proiektuei, horretarako behar duen denbora eta dirua lortuta: «Horrela lortzen dut neure buruarekin serio jartzea, epe bat bete behar baitut». Oraindik orain beste proiektu bat garatzen hasi da, berriro ere Gazte Sortzaileak beka lortuta, antzerki mundura salto eginda.

«Niretzat bizitza oso jostagarria da, eta oso gozagarria. Azken aldi honetan antzerkiarekin jolasten hasi naiz», dio. Asteartero Jason Gerra aktorearekin biltzen da Gasteizko Monstrenka kolektiboan, eta haren zuzendaritzapean hasi da bere lana garatzen. Umorea lantzeko asmoa dute, Josune Velez de Mendizabalekin batera. «Biak adituak dira, badute beren ibilbidea, eta onartu egin naute», dio poz-pozik.

Ez du, baina, ipuinak baztertzeko asmorik: «Antzerkian beste bat izan zaitezke, baina narratzean zu zara, zu eta zure ahotsa. Biluzte ariketa bat da, ez duzu ezer jantzi behar, ez duzu agertoki handirik behar, naturaltasuna besterik ez. Horri eutsita, gauza magiko bat sortzen da. Nire ahotsetik, nire gorputzetik, nire pentsamendutik kontatuko dut eta argi geratuko da gutxi gorabehera nolakoa naizen».

Ane Gebara, kasualitatez kontalaria, magia sortzailea. •

Xabier Izaga Gonzalez



Itziar Elizondo

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Deserrealitaterantz

Eguno bizimoduaren ezaugarrietako bat dirudi errealitateak -betikoak, garai batean harraskatzen, musukatzen, ukitzen genuen errealitate horrek- nonbaitera alde egin duela.

Konforme, esaldi hori ez da egia boro-
bila, baina badu egiatik zerbait, aurtengo Donostiako Zinemaldian zenbait pelikulak erakutsi diguten bezala...

Garai batean baziren ametsa, paisaia, erakunde eta pertsona gorpuzdunek hornitzen zuten errealtatea. Aldiz, kapitalismo garaikideak baditu tresnak errealtatea deuseztatzeko. Hala, hiritarrek errealtatean beren diruarekin erositako aseguru-zerbitzuak, pentsio-funtsak, dena delakoa, irrealak bilaka daitezke finantza trikimailuen poderioz, zenbait diruren eta enpresaren atzean ez baitago paper errea baino.

Steven Soderbergh horretaz aritzen da "The Laundremat" filmean. Amerikar alargun batek istripu baten ondoren arazoak izango ditu indemnitzazioa kobratzeko aseguru-enpresaren atzean sozietate abstraktuen faltsuke-riak daudelako. Hortik tiraka Panamako *offshore* konpainietara iritsiko gara, non egungo kapitalismo gorbatadunak sekulako diru parranda egiten duen egunero Mendebaldeko balioko gobernu demokratikoen baimenarekin. Filtrazio bati esker jakin genuenez, Mendebaldeko aberastek (tartean, politikariek, enpresariek, futbolariek, zinemagileek...) Mossack Fonseca bulegoaren laguntzarekin paradisu fiskaletan milioiak ezkutatzen zituzten jatorrizko herrialdeetan zergak ez ordaintzeko.

Enpresak eta beraien ardurak lurrundu dira, bai. Aldiz, pertsonen sufrimendua erreala eta solidoa da oso, negar malkoak atera ere ezin diren horietakoa. Langile prekarioak,

autonomo faltsuen etiketapean, dira kapitalismo desmaterializatuaren asmakizun produktiboena.

Ken Loachen “Sorry We Missed You” filmean buruzagia nagusiaren bozeramailea da, ohi bezala, baina nagusia ez da pertsona bat, gailu mugikor baten atzean ezkutatzen den izaki abstraktu bat baizik. Pantaila *boss* horrek pikutara bidaliko zaitu eguneroko helburuak betetzen ez baidituzu. Pelikularen protagonista mezulari bezala lan egiteko mikroenpresari bilakatuko da derrigor, are, mezularitza enpresari furgoneta alokatu edo eroatera behartuta dago, eta, eguneko xedeak bete ezean, enpresa indemnizatu beharko du! Gai-xotuz gero ordezkio bat aurkitu beharko du “lanpostua” ez galtzeko. Lanetik kaleratzerakoan, mezulari autonomia da bere porrotaren ardu-

raduna eta, horrenbestez, ez du kalte-
ordainik jasoko. Ekuazio perfektua
beraz: mezulari autonomoak hartzen
ditu arrisku guztiak eta enpresak ete-
kinak.

Deserrealitate moduko zerbait eraikitzen ari dira buru-belarri; kapitalismoak horretan sekulako abiadura hartu du, besteak beste digitalizazioari esker, aurpegirik gabeko sinismenak eta izakiak taxutuz; injustiziak, lotsagabekeriak, desberdinkeriak naturalak bailiran, eta ez pertsona jakin batzuen eta erakunde jakin batzuen ardura. Baina errealtatea burugogorra da eta bizirik dirau oraingoz: eguneroko izerdiek, negarrek eta zinkurinek, algarek, ferekek eta musuek, oihuek gorpuzten dituzte gure bizitzak, are gehiago prekarioak direnean. •



Langile prekarioak kapitalismo desmaterializatuaren asmakizun produktiboen dira.

GAURÉ

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



ALTAFFAYLLA ETA ATXU AIERRA FUNTSAK

JOSE ALFARO, TAFALLAKO ARGAZKILARI ERREPUBLIKANOA

Artikulua ilustratzen duen argazkia XX. mende hasieran egin zuen Jose Alfaro Cillero afizionatu tafallarrak (895-1979). Bertan Rekarteko presa ageri da, Tafallan izan berri diren uholdeak direla-eta aspaldion guztion ahotan izan den Zidakos ibaian. Irudiaren egilea Tafallako Zentro Errepublikanoaren fundatzailetako bat izan zen, joan den mendeko 30eko hamarkadaren hasieran, eta 1931ko apirilaren 14an herri horretako udaletxeko balkoira agertu zen Errepublika aldarrikatzeko. 1936ko gerra hasi zenean, atxilotu eta kartzelatu egin zuten. Iruñiera eraman zuten, eta handik Ipar Euskal Herrira joan ahal izan zuen. Hamar urte eman zituen bertan. Argazkigintzarako zaletasuna, ustez, bere osaba Macario Alfarorengandik jaso zuen. Hura zinemaren aitzindarietakoa izan zen Estatuan. Bere argazkiekin, Jose Alfaroek gizarte bizitza, jaiak eta eguneroko bizimoduaren eszenak dokumentatu zituen. Horrez gain, familia-erretratu eta argazkiak egin zituen. Gaur egun, argazkilari afizionatu tafallar hark egindako 1.280 negatibo dauzka gordeta bere familiak.

7^{haizetara}

BIDAIA ALDIZKARIA

DAGOENeko ZURE KIOSKOAN SALGAI



Loirako gazteluak Erregeen Haraneko aztarnak

«Game of Thrones-eko» istorioak motz gera daitezke Frantziako Antzinako Erregimenekoeekin alderatzen baditugu. Horren lekuko, Hexagonoaren erdialdean kokatzen den Loirako haran ederra.

Eta gainera: Queensland, hegoaldeko iparraldera • Jamaikako esentziaren bila
• Britainia Handiko trenbide mitikoenak • Karakorumekeko errusiar mendian barna

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7^{haizetara}

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

